# Goierritarra

227. zenbakia
2002-9-20




**Irailak 22:
VIII. azoka ekologikoa Zerainen**



**Irailak 29:
I. Euskal Herriko hegazti eguna Seguran**



## 36ko gerra: zauriak ez dira itxi



# GARMENDIA
## Tejas y cubiertas S.L.

VACSOL - WR[R] TRATAMENDUA **EGURRARENTZAT**

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

Edozein motatako teilatuak egiteko prestatuak, komunitateak, baserriak, txaletak eta abar

AZKENEKO AURRERAPEN GUZTIAK

AURREKONTUAK NEURRIRA



VAC VAC

VACSOL TRATAMENDUAK

Maioz industrialdea, 25-26 ORDIZIA Tel. : 943 161 032 / Faxa: 943 160 842



www.landrover.es




BERMEA 3URTE 100.000 Km

Land Rover kontzesionario berria ireki dugu Gipuzkoan. **EUROLAN 4x4**

LAND ROVER
THE LAND ROVER EXPERIENCE

**EUROLAN 4x4** Donsotia-Hernani errepidea (Galarreta) Telefonoa: 943 331 006

**Goierritarra**

**HAMABOSTEKARIA**

**Argitaratzailea:**
Goierritarrak Kultur Elkartea
**Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)**
**124 posta-kutxa ORDIZIA**
**Tfnoa: 943 88 96 12**
**Faxa: 943 88 27 19**
**E-mail:**
**goierritarra@topagunea.com**

**Zuzendaria:** Loinaz Agirre
**Maketazioa:** Mikel Albisu
**Publizitatea:** Argider Mujika

**Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Leire Telleria, Edurne Ayuso, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Aitziber Murua, Pako Zubeldia, Iñaki Ugalde, Mari Flor Mendizabal, Aimar Maiz, Patxi Telleria eta Manex Aranburu.

**Fotokonposizio eta maketazioa:**
**Goierritarra**
**Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
**Tirada:** 7.300 ale
**SSN:** 1132-0907
**Lege gordailua:** SS-926/89
**Frankeo kontzertatua:** 37/76



***GOIERRITARRAk ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.***



*Eusko Jaularitzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta* ***GOIERRIKO UDALEK*** *diruz lagundutako aldizkaria*


*Irailak 22*

# VIII. nekazaritza ekologikoaren azoka Zerainen



'Azoka baino gehiago' lelopean, irailaren 22an, Zerainen, Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren azoka izango da, Biolur eta Zerain Dezagun Fundazioak antolaturik. Zortzigarren edizioa du dagoeneko Zeraingo azoka ekologikoak. Azoka goizean izango da, 9:00etatik 14:00etara. Eguerdi partean, bazkari ekologikoa izango da eta arratsaldean, 5,30etatik aurrera, erromeria. Ondorengo lerrootan dituzue xehetasunak:

## Azoka ekologikoa

Produkzio ekologikorako arabera ekoiztutako produktuak izango dira Zerainen salgai. Hala nola, barazkiak, fruta, barazki kontserbak, ogia, gazta, eztia, ardoa, arrautzak, olioa, esnea, sendabelarrak, mermelada eta gozoak, ontziratutako elikagaiak.

Pintxo ekologikoak (barazkiak, gazta, algak, tofu...), Goierriko artisautza (zeramika, makilak, tailak, zumea, gantxiloa, artilea, kandelak...) eta sagar muztioa ere ikusgai eta dastagai izango dira. Antzinako eran, dolarean, egindako sagar muztioa basotan eta botilatan banatuko da.

## Tailerrak, ikuskizunak eta artea

Goizean zehar gozogintza, kandela eta fieltro tailerrak izango dira. Bioeraikuntza erakusketa ere izango da.

Beste hainbat ikuskizun ere bai: lixiba antzinako erara Zeraingo Kontxita Gabiriaren eskutik; linoaren prozesua tresna zaharrak aurkeztuz; telarra martxan; bolilloak, gorulariak, txondorra sutan, hazi ekologikoaren erakusketa eta erlezaintza erakusketa. Hauez guztiaz gain, jakina, Zeraingo herriak eskaintzen dituen museo etnografikoa, diaporama, 1711ko kartzela, Larraondoko zerrategia, Aizpeako meategiak...

## Bazkaria

Osagai guztiak ekologikoak diren bazkaria prestatuko dute 200 lagunentzat. Menua: kalabazin krema, bildotsa saltsan eta arroz esnea. Bazkalondoren, JoxAnton Artzeren poesia emanaldia izango da. Bazkarira joateko erreserbak aurrez egitea komeni da. Horretarako bi telefono zenbaki jarri dituzte: 943801505 (Mandioa) eta 943761447 (Biolur).

## Erromeria

Lehengo erako erromeria izango da egunari amaiera emateko, arratsaldeko 5,30etatik Abemariakoa jo arte. Erroskilak, sagardoa pitxarretan, Xapre trikitilaria, Zeraingo ttun-ttun joleak, bola jokoa, txapliguak... izango dira.


**Goierritarra Goierriz kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria eta Espainia: | urtean 12 euro |
| Ipar Euskal Herria eta Europa: | urtean 24 euro |
| Europaz kanpo: | urtean 36 euro |




## Bilore enpresak 48 langile kaleratu ditu

Zaldibiako Bilore enpresak berriz ere 48 langilerentzako erregulazio-espedientea aurkeztu zuen iraileko bigarren astean. Gipuzkoako Lan Ordezkaritzak onartu egin ditu kaleratzeok. Protesta ekintza ugari egiten ari dira Bilorekoak. Argazkian irailaren 11n Ordizian egindakoa. 20an Ordiziako udaletxean 24 orduko itxialdia egin zuten. Kaleratutako langile gehienak CCOO sindikatukoak dira, eta gehien-gehienak emakumezkoak.

## Jon Gorrotxategi txandakako gose greban

Barandalla euskal presoaren askatasuna eskatzeko txandakako gose greba egiten ari dira Soto de Realgo espetxean. Tartean dago Jon Gorrotxategi beasaindarra. Astebeteko gose greba egin du eta urria bukatu aurretik beste astebeteko bi gose greba egingo ditu. Barandalla gaixorik dago eta 92. artikulua aplikatzea eskatzen dute protestarekin.

## M. Anjeles Iñurrategi: Ordiziako gazta txapelketako irabazlea



**Espero al zenuten txapelketa irabaztea?**
Ez genuen espero irabaztea. Lehenengo bostetan sartzeko esperantza bazuen senarrak. Iaz ere 3. egin genuen, Euskal Herriko txapelketa irabazi genuen eta nire senarrak har hori bazuen barruan. Ordizian lehenengoa izatea izugarria da. Jendeak famarik handiena Ordiziakoari ematen dio. Iaz Euskal Herriko txapelketa irabazi genuen eta ez zen hainbesterakoa izan.

**Noiz egindako gazta zen? Aukeraketa zaila izaten al da?**
Urtarrilean egindakoa da, keetutakoa. Ordizian gehienean keetutakoek irabazten dute. Begi aldetik nahikoa osoa iruditu zitzaigun. Lote batzuk probatu egiten ditugu eta nahiko egokiak iruditu zitzaizkigun. Aukeraketa zaila izaten da eta epaimahaiari gustatzea oraindik ere zailagoa.

**Gaztak egiten aspalditik ari al zarete?**
Nire senarra bai, ni mundu honetan ezkondu eta gero hasi naiz. Gehienbat senarra ibiltzen da.

**Ardi asko al dauzkazue? Non ibiltzen dira?**
350 bat dauzkagu. Batzuk Altzaniako Partzonerian ibiltzen dira udan eta besteak baserriaren inguruan, Zerainen eta Seguran. Gaztak etxean egiten ditugu. Mendian ez ditugu ardiak jezten.

**Zuen gazta erdia New Yorkera eramango dute.**
Beti ere poza ematen du. Ea gustatzen zaien.

ZEGAMA OKINDEGIA
Esku egindako ogi naturala
☎ 943 80 10 66
Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.
Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan
Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.
Segurako Erosle, Idiazabalgo Ahizpak eta Ormaiztegiko Iñaki Erosle.

LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 943 88 09 47
ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA
Iurre Auzoa
OLABERRIA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
zuri esker
gizarte ekintza



# Julen Gabiriak irabazi du V. Igartza literatur beka

Irailaren 18an egin zen V. Igartza literatur bekaren sari banaketa. Beasaingo Udalak, Elkarlanean argitaletxearekin eta CAF enpresarekin antolatutako idazle gazteentzako literatur sorkuntza bekak badu bosgarren irabazlea: Julen Gabiria. 2000. urteko I. beka ere galdakorrak irabazi zuen. 3.000 euro jaso zituen irailaren 18an, gainerako 3.000 euroak liburua amaitutakoan jasoko ditu. Ekitaldi berean, iazko beka irabazi zuen Unai Elorriaga Lopez de Letona getxoarrak, zor zitzaizkion 3.000 euroak jaso zituen, lana amaitua baitu dagoeneko.

Hamaika lan aurkeztu dira V. Igartza sarira. Horietako asko kalitate onekoak. Unai Elorriaga Lopez de Letona, Jasone Osoro eta Xabier Mendiguren Elizegi idazleek osatutako epaimahaiak bi lan izendatu zituzten finalista: 'Inork ezagutzen al du Gino' eta 'Voltaire' izenekoak. Azkenean, 'Inork ezagutzen al du Gino' irabazle ematea erabaki zuten; hau da, Julen Gabiriaren lana.

Euskal Herriko eta Europa osoko gertakari historiko larrienetakoak istorio txikien bitartez kontatzeko asmoa agertzen du Gabiriak bere proiektuan. Epaimahaikideen esanetan, *"hizkuntza malgu eta gozo darabil, xehetasunetarako abilezia dauka, pertsonaienganako kuttuntasuna eta umore ukitua ere bai"*.

# Turismoa Goierrin: azken urteetako abuzturik onena

Iraila iritsita, uda honetan, Goierriko turismoari buruzko balorazioa egiteko garaia izaten da. Nikolas Osinalde Goiturreko ordezkariak emandako datuen arabera, Goierrin, uztailan eta abuztuan, turismo bulegoetatik informazio eske pasatutakoak, 6.800 lagun izan dira. *"Hortik kanpo, jakina, askoz ere gehiago, baina horiek zenbatu gabe daude"*. Iazko datuekin alderatuz, turismo bulegoetatik pasatu den jendea, ia, bikoiztu egin da. Uztaila nahikoa eskasa izan da; nekazalturismo etxeak %40an egon dira beteta. Abuztuan, %80. *"Azken urtetako abuzturik onena izan da"*, dio Osinaldek. Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko joera berbera. Igoera honen arrazoiak bilatzerakoan hauek aipatu ditu: *"Giro baketsua egon da eta hori nabaritu da. Irailerako berriz, oso ahul izatea aurreikusten da"*. Lehenengo urtea da jendeak zuzenean Goierri eskatu duena. Eguraldia ere alde izan dugu. Etengabe zabaltzen ari den informazioak ere izan du eragina. Interneteko orrialdeak esaterako, oso funtzionatu omen du.

Batez ere inguruko probintzietako jendea etorri da. Donostialdetik, Bizkaitik eta Nafarroatik asko. Aurrera begira hauei begira lan egingo da batez ere. Gainerakoan, katalanak izan dira gehienak. Espainiako Estatuko ia leku guztietatik etorri dira turistak Goierrira, Baleareetatik eta Gaztela-Mantxatik izan ezik. Hortik kanpo, Portugal, Austria, Belgika, Frantzia, Ingalaterra, Alemania, Italia, Argentina, Bielorrusia, Japon, Txile, Peru eta Kanadakoak.

# Silo-bolen plastiko bilketa

Udako etenaldiaren ondoren, Goimenek berriz ekingo dio silobolen plastiko bilketaren kanpaina berriari. Irailetik ekainera bitartean egingo da bilketa, biak barne. Bilketa, hileko 3. astearteetan egingo da. Urte bukaera bitarteko egunak hauek dira: urriak 15, azaroak 19 eta abenduak 17. Bilketa puntuak errespetatzea eskatzen du Goimenek. Gogoratu, plastikoak bezperan atera behar direla. Argitasun gehiago nahi izanez gero, Goimeneko 943161244 telefonora edo zure herriko udaletxera deitu.


SEGURA IRRATIA
F.M. 89.2
EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN

GESTORIA BIOK
ASEGUROAK
✖ Aholkularitza laborala eta fiskala
✖ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak
☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA

OSTEOPATIA
Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97
● Lunbago, Ziatika, Hernia Diskal
● Zerbikalgia, Zefalea, Migraina, Artrosis.
● Tendinitis, Kirol Lesioak.
Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN



ARRIKUTZ Tailerrak
Autoen konponketa orokorrak
Salmenta
Informazioa
HONDA
Karnetik gabeko autoak
Tel.: 943 88 52 00
Nafarroa Etorbidea, 51 BEASAIN



### JAKIN BEHARREKOA

✔ **'Tokiko Agenda 21eko Udal Kudeatzailea" graduondoko titulurako ikasketak** antolatu dituzte Azpeitiako Ingurugiro Etxeak eta UPV-EHUko Ekonomia Aplikatua 1. Departamentuak. Matrikula epea: irailaren 15etik 30era. Informazioa: Ingurugiro Etxean - tel. 943.15.17.13 edo UPV-EHUn - tel.94.6013889.

✔ **Euri azidoa,** erdi eta ipar Europan daukagun ingurumen arazo larrienetakoa dugu, autoetako irteera tutuetako zein labe industrialetako emisioen oxido nitrosoak, eta zentral termikoen tximinien sufrezko dioxidoak, azidotasun kutsadura hau sortzeko lehen gaien iturri dira. Eskandinabiar zein Ipar Ameriketako laku ugari guztiz suntsitu ditu eta baso ugari ere bide beretik doaz. Euri, elur edo eta laino azido hauek abere, landare, eta lurraren arteko orekarekin amaitzen du. Adibide gisa: azidotutako baso lurretan sortutako hosto berrien kaltzio faltak, azken hauek harrak jaten dituztenean eta batik bat harrez elikatzen diren hegaztien arrautza azal mehetan daukagu. Txitarik ez, harrik ez, zuhaitzik ez...eta sistema akuatikoetan zer esanik ez!

### GARAIAN GARAIKOA

✔ **Irailaren bukaeran enara arrunta eta enara azpizuria** ikus daitezke, milaka eta milaka pasatzen. Zozo paparzuri, txinbo kaskabeltz eta pinu kaskabeltzen etorrera ere ikusiko dugu. Amilotx urdinak atzetik jarraitzen diela. Usapalak gero eta gutxiago egunez eta gauez pasatzen dira.

# Etorkizunik bada nekazaritza-ingurugiroa zaintzetik datorrena izango da

Azkeneko hamarkadetan eta, batik bat Europako Batasunean sartu ginenetik, nekazaritza eta abeltzaintza mundua nolabait subentzioetatik bizi da. Laguntza horiek gabe oso zaila izango litzateke horietatik bizi ahal izatea. Orain arte, azkeneko Munduko Gerraren ondorengo eskasiari erantzun nahian, produkzioa izan da bultzatu dena eta subentzioak horren arabera banatzen dira neurri handi batean. Baina, politika hori aldatzen ari da. Produktu ugari eta merkeak lortu nahian garatu den intentsifikazioaren aurpegi txarrak ikusten hasi gara eta bere etorkizunerako euskortasuna ere zalantzan jartzen ari dira. Geroz eta garbiago dago era horretako ustiapenak kalte ugari sortzen dituela, ez bakarrik inguruan, baita baserritarraren bizitza kalitatean ere. Bestela aztertu: behi eroen izurritea eta gertatzen ari diren beste hainbat osasun arazo, minda edo purinak zenbait baserritan sortzen dituen kutsadura eta desegite zailtasunak, produktuen kalitate kaxkarra (itxuraz ez noski!), industria batzuekiko sortzen den dependentzia, naturan eragiten duen sinplifikazio eta pobrezia eta, baserritarrarentzat garrantzitsuena, jarduera horietatik ateratzen den jornal exkaxa. Geroz eta garbiago dago, eta hala diote Europa Batasunetik ere, irtenik gabeko bidea dela.

Hausnarketa horren ondorioz eta, batik bat, Europako Batasunak Munduko Merkatal Erakundearekin (OMC) sinatu dituen akordioek nekazal komertzioa liberalizatzera behartu dutelako, 1992 eta 1999an egin zituzten Europako Nekazal Politikaren moldaketek nekazarientzako laguntza zuzenak jaistea ekarri dute. Aldi berean, Europatik ingurumenarekiko eskakizunak zorrozten joan dira, beste sektore guztietan bezala. Fabrikei derrigortu egin zaie kerik ez botatzeko iragazkiak jartzea, errekara isurkin zikinak botatzea geroz eta zuhurrago zaintzen da, azpiegitura handiak egiten dituzte urak garbitzeko edo zaborrei irtenbide bat emateko, eta era horretako adibide asko denok ezagutzen ditugu. Baina, beren jar-



dueren eraberritze hori egin beharra izan dutenak ez dira bakarrik egon lan horrek suposatzen duen inbertsioa ordaintzerakoan, administrazioengandik laguntzak jasotzen dituzte. Nekazaritzan ere, baserri munduan, nahiz eta beranduago mugitu, hori datorkigu eta, ziur nago, baserritar askok antz eman diotela.

Geroz eta balio handiagoa emango zaio urak garbiak mantentzeari, lurra ahalik eta gutxien galdu eta kutsatzeari, paisaiaren kalitateari eta, orokorrean, baliabide naturalen zainketari. Laguntzak ingurua zaintzen duten baserritarrei zuzenduak joango dira. Bide horretan berriro garai bateko ohizko teknikak indarra hartzen dute, toki bakoitzeko baldintzei ongi moldaturik baitaude. Tradiziozko teknika horiek ezagutu, berriro hausnartu eta gaurkotu, egin behar ditugu. Gauza batzuk ez digu gaur egunerako balioko, jezteko erak, ukuiluen egitura, lurra lantzeko era, garraioak, adibidez. Baina beste batzuk, lurraren antolamendua, belardi eta soroak ongarritzeko erak, zuhaitz eta zuhaixken banaketa nola antolatzen zen baserriaren lurretan eta abar, oso mesedegarri izan daitezke.

***Goimen***

***Landar Lan taldeak egindako orrialdea***

***Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44***

Imajina al dezakezu Goierri... GOIERRITARRArik gabe?

# Goierritarraren posta gastua ordaintzeko laguntza

## Goierrin bizi zaretenok borondatez betetzeko txartela

SOS

hilean euro 1

Goierritarra etxean jasotzeko

**Izen-abizenak:** ........................................

**Helbidea:** ........................................

**Herria:** ........................................

**Telefonoa:** .................... **Adina:** .......... **NAN:** ....................

**Kontu zenbakia (20 digitu):** ........................................

**Goierritarraren harpidedun naiz eta hala izaten jarraitu nahi dut** ☐

**Ez naiz Goierritarraren harpide eta hemendik aurrera izan nahi dut** ☐

**Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru) kobratuko dizkizugu zure kontu korrontetik**

EUSKAL HERRIKO HEGAZTIEN 1. eguna

SEGURA
2002ko Irailak 29



EUSKAL OILOA

## EGITARAUA

10:30etan, EUSKAL OILOAren erakusketa zabala
- Segurako OILOZALEEN guneak ikusgai
- Ostruka, ahate, oilar, pularda, kapoi eta zisneen erakusketa
- OILO eta hegazti produktuak ikusgai eta salgai, plazan

Zatoz SEGURAra!!!

ANTOLATZAILE
SEGURA UDALA

# GIPUZKOAKO NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN VIII. AZOKA

Azoka baino gehiago

EUSKADI
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
AGRICULTURA ECOLÓGICA



TXONDORRA
ARTISAUTZA ETA ARTEA
HERRI BAZKARI EKOLOGIKOA
ZERAIN PARKE KULTURALA
IKUSKIZUNAK
ERROMERIA
TAILERRAK

# IRAILAK 22
# ZERAIN

**9:00etatik 14:00etara azoka**
**17:30etik 19:00ak jo arte erromeria**
**Egun osoz: erakusketa eta tailerrak**

## ZERAIN PARKE KULTURALA

Zerain

- Herri Museoa, Larraondo Zerrategia, Aizpeako Meategiak, Kartzela.
- HARIZTI-ERDI ATERPETXEA
- MANDIOA DENDA: herriko produktuak, artisautza
- INFORMAZIO BULEGOA: urte osoan zabalik

Herriko Plaza z/g Tel: 943 801 505 Faxa: 943 801 606 E-mail:mandio@rebestb.es

ANTOLATZEN DUTE:

Biolur

ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOA

*Irailaren 29an, Euskal Oiloa izango da protagonista*

# I. Euskal Herriko hegaztien eguna Seguran

**Egurako herritar talde batek eta Udalak antolaturik, I. Euskal Herriko hegaztien Eguna izango da irailaren 29an, Seguran. Arraza eta espezie ezberdineko hegaztiak izango dira Seguran ikusgai. Euskal Oiloa arrazako hegaztiek protagonismo berezia izango dute. Hainbat hegaztirekin egindako produktuak ere salgai izango dira. Egitarau zehatzaSégurako kronikan duzue.**

Udaberrian izaten den lore eta landareen azokari, udazkenean, hegaztien egunak hartuko dio erreleboa. Era honetan, Segurako udalak legegintzaldi honetarako lehen sektoreari indar pixka bat emateko asmoak, azokei dagozkienak, betetzat daudela esan daiteke.

Xabier Albisu egun honen antolatzaileetariko batek argitu digunez, I. Euskal Herriko Hegazti egun honen helburuetariko bat horixe da, *"baserritar munduari pizgarri pixka bat ematea"*. Horrekin batera, herriari bizitasuna ematea ere bada helburua.

Segurarrek hegaztiekin zer nolako lotura duen galdetu diogu. Umore kutsuz, segurarrak, gaitzizenez, oilo luma zopajaleak direla argitu digu.

## Egitaraua

**10:00etan:** oilo salda txanbolinpeko tabernan.

**10:30ean:** Herriko txistulariak eta Koldo Iparragirre eskolako trikitilariak herrian zehar.

**10:30etik aurrera:** Euskal oilo eta hegaztien erakusketa. Oilo eta hegazti produktuak ikusgai eta salgai.

**14:30ean:** Herri bazkaria plazan. Joseba Etxeberria eta Xanet Garmendia sukaldari herritarrek ondorengo menua prestatuko dute: hegazti patea, porru pastela, euskal oilo gixatua eta ijito besoa. Bazkari txartelak tabernetan salgai.



## Hiru gune

Irailaren 29an herria hiru gunetan banatuko dute. Arboladian, errebotean eta herriko plazan egongo dira postuak.

Elizaren ondoan dagoen arboladia bi gunetan banatuko dute: alde batean euskal oiloak egongo dira eta bestean, herriko ordezkariak. Herritarrek hegazti ezberdinak jarriko dituzte ikusgai: antzarrak, oiloak, oilarrak, txitak...

Errebotearen bueltan, arraza eta espezie ezberdinetako erakuslekuak izango da ikusgai: oiloak, indioilar errealak, faisanak, usoak, galeperrak, korinak, kurrilloak, ahateak, okak, zisneak, pulardak, kapoiak...

Herriko plazan, 9 bat postu ezberdin egongo dira: antzar, ahate eta oilaskoak, arrautza ekologikoak, arrautza kanperoak, ahatekiak, ostruka handiak eta txikiak, ostruka produktuak, ahate hazleak...

## Taberna eta bazkaria

Plazan bertan, Txanbolinpeko arkupeetan, taberna jarriko dute antolatzaileek, edariak, Euskal oiloaren salda, pintxoak eta abar eskainiz. Eguerdi partean, bertan 100 lagunek bazkaltzeko aukera ere izango da.

Postuak Euskal Herri guztitik etorriko dira. Hutsune bat izango da dena Seguran. Izan ere, Zeraingo Lumagorrikoak ez dira aurten Seguran izango. *"Aurreko astebururan euskal oilaskoen eguna daukate. Gertuegi iruditzen zaie eta gainera, gehienak oporrak leudeke. Irudi on bat ematea nahiago luketenez, aurten ez etortzea erabaki dute"*, argitu digu Xabier Albisuk.

## Girotze lana

Aurreko astean, irailaren 25ean, iluntzeko 8etan girotze lana egingo dute antolatzaileek: euskal oiloaren inguruko hitzaldi praktikoa izango da, Zopajale elkartean. Iñaki Izagirre sukaldari lazkaotarra izango da irakaslea. Aste berean, Segura Irratian, Euskal Oiloen elkartekoekin elkarrizketak egingo dira.

Esku programa berezia kaleratuko dute I. Hegaztien Egunerako. Batetik egitaraua azalduko da eta bestetik, euskal oiloari eta beste hainbat kontzepturi buruzko xehetasunak.

Aurten I. Hegaztien Eguna izango da baina aurrera begira urtero egiteko asmoa daukate segurarrek.



AUSOEGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- Tximini eta egurrezko ekonomikak
- Berogailuak
- Iturgintza
- Zeramika erakusketa
- Bainuko altzariak
- Erreforma osoak



## Martin Ibargurenen memoriari esker

# 36ko gerran frankistek fusilatutako bi gazteren hezurdurak aurkitu dituzte Zaldibian

**Irailaren 11n, goizeko 10,30etan, genuen zita komunikabideok, Zaldibiatik Gaintzarako bidean. 1936ko gerran fusilatutako bi pertsonen gorpuzkinen aurkikuntza zen albistea. Irastortza baserriko Martin Ibarguren zaldibitarraren pistari jarraituz, Aranzadi Zientzia Elkartekoek egin dute aurkikuntza. Orain artean, Gipuzkoan egin den lehenengo aurkikuntza da.**

Martin Ibarguren Zaldibiako Udalekoekin harremanetan jarri eta hauek Aranzadi Zientzia Elkatekoekin. Honela, irailaren 9an indusketa egitea erabaki zuten, Martin Ibargurenek emandako pistei jarraituz. Egunean bertan hasi ziren hezurdurak agertzen. Irailaren 11n amaitu zituzten lanak. Pako Etxeberria, EHUko Medikuntza Legaleko irakasle eta Aranzadiko Antropologiako gaietako arduradunak gidatu du indusketa.

Duela bi urte Leongo herrixka batean 12 errepublikanoren gorpuak aurkitu zituzten. Duela gutxi Burgosen ere bai. Martin Ibargurenek aurkikuntza horien haritik, hainbeste urtean barruan zeraman zama arindu nahi izan zuen, berak ezagutzen zuen gertaera kontatuz. Honela iritsi dira Zaldibiatik Gaintzara bidean dagoen pinudira. 1936an sagastia zen.

Zalantzaz beteta, lekua oso deserosoa baitzen, baina



*Gorpuzkinak azaldu ziren zuloa.*

esandako lekuan aurkitu zituzten hezurdurak. Bi gorpuren hezurdurak. Buruhezurretan tiro banaren zuloak ikus daitezke. *"Leonen eta Burgosen aurkitutako gorpuzkinekin bat datoz"*, Pako Etxeberriaren esanetan.

Bi fusilatuen hezurdurak bata bestearen gainean daude. Bat iparraldera eta bestea hegoaldera begira. Bat buruz behera dago. Hankak bestearen buruaren gainean. Azpikoa, pixka bat alde batera, goi aldera begira. Datu gehiagorik ez zuten eman nahi izan Aranzadikoek, ez sexuaz eta adinari buruz. Datozen egunetan agian zehaztasun gehiago emango dute.

### Andoaindarrak zirenaren susmoa

Martin Ibargurenek emandako datuen arabera, ez lirateke Zaldibiakoak izango, ezta Goierrikoak ere. Andoaindarrak direla dio. Dena den, orain ikerketa lanean ari dira hezurduren nortasuna argitzeko. Zaldibiako Udalak berak fusilatuen nortasuna argitu nahi du eta horretarako egin litezkeen azterketa lanak egiteko eskatu dio Aranzadi Elkarteari. Nortasunari buruzko susmoren bat balego, familiartekoekin jarriko dira harremanetan Aranzadikoak.

Andoaingo alkateak emandako datuen arabera, 16 andoaindar fusilatu zituzten 36ko gerran eta horietatik 3 identifikatu gabe daude. Dena den, ikerketa sakonagoen zain daude.



### Omenaldia

Zaldibiako herriak omenaldia eskaini zien irailaren 11n, aurkitu berri diren bi gorpuzkinei. Patxi Iraola eta Altzo Txiki bertsolariek bertso bana bota eta aurresku dantzaren ondoren, Joakin Zubeldia alkateak hitza hartu zuen. *"Martin Ibargurenen borondatea eskertzekoa da, beldurra pixka bat uxatuz. Euskal Herriaren historiari argitasun pixka bat emango diogu"*. Aranzadi Zientzia Elkartearen lana ere eskertu zuen Zubeldiak.

Zaldibiako Udalak, *"gorpuzkinei tratu duina ematea nahi du. Honela, beraien senideen esku uztea edo hala gertatuko ez balitz, Zaldibiako hilerrian hilobiratuko ditugu"*, alkateak zehaztu zuenez.

Aldi berean, 36ko gerran fusilatuak izan ziren bi gazte hauen egoerak gaur egungo egoeraren antzekotasun handia duela azpimarratu nahi izan zuen Zubeldiak. *"36ko gerran hildako asko izan ziren, torturatuak, herritik ihesi joandakoak. Garai bateko kontuak dira hauek baina gaur egungooi ere oso gertukoak zaizkigu gertaera hauek. Zaldibiako udala, herritarrek aukeratu duenez, eta udal demokratiko eta aurrerakoia izanik, garai hartakoek faxismoari aurre egin zien bezala, momentu honetan gero eta lotsagabetuago dagoen faxismoari aurre egingo diola"* esan zuen.



*Indusketarako ez da oso inguru egokia Aranzadikoen esanetan. Buztin lurra da, oso itsaskorra.*

## Gipuzkoan 1.100 fusilatu

Hezurdurak identifikatzeko lana ez da erraza izango, 1936-1942 urte bitartean, Gipuzkoan bakarrik, *"gobernu errepublikarrari leial"* izandako 1.100 gizon eta emakume hil baitzituzten tropa frankistek eta erdiak oraindik ere aurkitu gabe baitaude. Euskal Herrian 5.500 inguru fusilatu zituzten.

*"Gipuzkoan egiten den lehenengo eskabazioa da Zaldibiakoa. Zulo asko daude ikertzeko, batzuk identifikatuak. Esaterako, Ataunen, Oiartzunen, Bergaran, Hernanin..."*. Datu horiek eman zituen Iñaki Egaña historialariak. *"Orain artean tabu bat izan da lurperatutakoen eta desagertuen gaia, gauza asko isildu nahi izan direla dirudi, eta oraindik indusketak egiteko oztopoak daude"*, esan zuen Egaña historialariak. Gauzak honela, erakundeek eta elkarteek elkarlanean lan egin beharko dutela adierazi zuen.

Aurkikuntza honek, *"gizartearen kontzientzia esnatzeko"* balio izango duenaren esperantza du historialariak.

# *Martin Ibarguren:*
# "66 urtean barruan bueltaka izan dut kontu hau"

**Zer gogoratzen zenuen gertaera honetaz?**

15 urte nituela, Frantziara joan behar nintzen. Las Arenaseko enbarkaderora joan nintzen. Baina egun hartan Elgetako Intxorta mendikoen ofentsiba hasi zen. Gu eraman behar gintuen itsasontzirik ez zen iritsi. Etxera joateko esan ziguten. Bizkaiko Garain bizi nintzen eta handik Zaldibiara oinez etorri nintzen. 1937ko apirilaren 28a zen. Hemengo heriotzen gora-behera gertatua zegoen beraz. Nik ez nuen bizi izan baina hemengo hildakoen konbertsazioa atera zen.

Aitak kontatzen zigunaren arabera, urrian, arratsaldeko 4,30ak-5ak aldean, nire bi arrebekin batera sagar biltzen ari zela, tiroak entzun zituzten. Lana utzi eta etxera joan ziren. Etxera iristerako, albistea iritsi zitzaion aitari, bi pertsona hil zituztela gure bordaren ondoan. Arotzanea tabernara joan eta bi peoi kontratatu zituen zuloa egin eta bi gorpuak lurperatzeko. Gaua izango zen ordurako, urrian eguna motza izaten baita. Urria izango zela uste dut, sagarrak biltzeko garaia baitzen.

Bide bazterrean lurperatzeko esan zioten baina ez zitzaion ondo iruditu eta sagastian sartu zuten. Gorpuak ez zituzten zuzen jarri, oraindik bigunak baitzeuden gorpuak, hil berriak. Zulora bota eta kito, garrantzitsuena tapatzea baitzen.



*Martin Ibargurenen aita, Jose Bitor Ibarguren Imaz zen. Bera alkate izendatu aurretik Mugertzako Juan Mendizabal zen Zaldibiako alkatea, EAJkoa, Francoren aurkakoa. "Gurea karlista-edo zen. Dena den, gure aita zena ez zen inongo politikan sartu, agintzen zuena egiten zuen".*

**Andoaingoak direla diozu. Zertan oinarritzen zara?**

Daturik inork ez dauka. Aitari iritsi zitzaion albistea, ez dakit nondik. Nire aitak ere ez zituen bizirik ikusi.

**Aurkikuntza honekin barnean zeneraman pisu hori arinduko zenuen, ezta?**

Bai horixe, arinduko ez da bada. 66 urtean bueltaka izan dut kontu hori eta gaur gertatzen denaren berdin-berdina da ordukoa ere. Orduan hura ikusi nuen gaztetan, eta orain berriz ere ikusten ez bagara ere atean bezala ikusten dut, orduan gehiago emozionatzen naiz. Nik uste Zaldibiako herria pekatu horretatik aske egiten dugula eta gizonari bere lekua ematea opa diogu.

**Gorpuen zuloaren berri zuzen-zuzen eman duzu. Lehen sagastia izanik eta orain pinudia, zein erreferentzia zeneukan?**

81 urte dauzkat eta pentsatu nuen nire semeari esatea non zeuden gorpuak, egunean batean zerbait gertatuta ere. Biok etorri eta estaka bat jarri nuen, tokiaren inguruan. Kasualitatea da baina estaka hori hankaren gainean zegoen. Bidea nuen erreferentzia: goitik behera etxerako bidea zegoen, ukalondoa bezala irteera bat dago eta handik gidatzen nintzen. Nik uste nuen lurrean sartuta gehiegi ez zirela egongo, metro erdi bat edo pentsatzen nuen. Baina ikusten denez, orain 35-40 urte pinuak landatu zituztenean lurra bota zuten bide inguruan eta orduan metro eta erdiko zuloa egin behar dute.

**Zu bezalako egoeran daudenak orain errazago animatuko direla uste al duzu?**

Jendea animatu beharko litzateke, ez baita delitua edo okerra. Kontzientziak agintzen edo eskatzen duen gauza bat da.

# Iker Sancho lazkaotarra Moskun euskara irakasle

**Filologia Eslabiarra ikasi zuen Iker Sancho lazkaotarrak eta harrezkero nahiko harreman estua izan du Errusiarekin. Urte t'erdi egin du Moskuko Unibertsitate zentralean euskara irakasten eta orain berriro itzuliko da beste ikasturte baterako.**



*Ikasita eta moldatzeko moduan 6 hizkuntza dakizki Ikerrek: euskara, gaztelania, errusiera, eslobakiera, poloniera eta ingelera.*

**Nolatan joan zinen Madrila filologi eslabiarra ikastera?**

Hizkuntzak asko gustatzen zaizkit eta UBI bukatu nuenean 1993. urtea zen, justu ekialdeko herrialdeetan aldaketak hasi ziren garaia. Interesgarria iruditu zitzaidan, etxean ere baiezkoa eman zidaten eta Madrilera joan nintzen. Espaini guztian Madrilen bakarrik ikas liteke, eta halere oso ikasle gutxi ginen, 7-8k bakarri bukatu genuen, 2 ikasle edo ikasle bakarreko klaseak ere ezagutu nituen. Hori hizkuntzak ikasteko bentaja handia da.

**Lanerako zein aukera daude?**

Hemen, lehen oso gutxi. Baina orain, sinatzen ari diren hitzarmenekin, unibertsitatean ari dira plazak ateratzen. Itzulpengintzan errusierari garrantzia ematen zaio eta aukerak zabaltzen ari dira. Polita da egindako lanak saria duela ikustea.

**Hizkuntzak ikasteko beharrezkoa izango da atzerrira joatea.**

Ni lehenengo Madrilera joan nintzen eta han oinarria hartu nuen. Errusiara ikastera joateko beka asko zeuden. Ikasle gutxi ginenez, eta denek joan nahi ez zutenez, aukera handia zegoen bertara joateko. Ikasle nintzenean 3 aldiz joan nintzen Errusiara, Eslobakiara ere joan nintzen. Horrela joan nintzen pixkanaka hizkuntza ikasten.

Lehen aldiz 1994an 18 urterekin joan nintzen Errusiara 3 hilabetetarako, 1996an beste 3 hilabete egin nituen eta 1998an beste bi. Karrera bukatu ondoren Eslobakian egon nintzen 6 hilabete. Bolada batean hizkuntza eslabiarrak nahiko alde batera utzi nituen, baina, aurrerago Errusiara euskara irakastera joateko aukera sortu zitzaidan eta urte t'erdi egon naiz bertan lanean.

**Nola sortu zen aukera hori?**

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Moskuko Unibertsitate Zentralak hitzarmena dute sinatuta. Horren arabera irakasleen elkartrukatzea egiten da, Errusiatik irakasle bat etortzen da Gasteiza errusiera irakastera eta hemendik irakasle bat joaten da Moskura euskara irakastera. Hitzarmena sinatu zutenean lanerako lehiaketa atera zuten, aurkeztu nintzen eta niri eman zidaten plaza hori.

Orain beste hitzarmen bat sinatu da urtero 3 ikasle Gasteiza euskara ikastera etortzeko eta beste 3 Gasteiztik Moskura joateko.

**Zer moduzko esperientzia izan da?**

Oso ona, bai nik errusiera perfekzionatzeko, baita ere, beraiek euskara ikasteko duten interesagatik ere.

**Zer dela eta interes hori?**

Kontuan hartu behar da hango euskara ikasle guztiak hizkuntzalaritza ikasketak egiten ari direnak direla. Euskara beraien ikasketetan hautazko gaia da. Hizkuntzalari diren aldetik, euskara, hizkuntza bezala, oso interesgarria zaie duen originaltasunagatik. Egunero hitz egiten dugunok konturatzen ez bagara ere, hizkuntzalarientzat oso interesgarria da euskara.

**Harrituta geratzen al dira euskararekin?**

Bai, izugarri. Egunero etortzen zait norbait, gramatikaren inguruko galderaren batekin, esaldiren bat aztertzeko itzulpena eskatzera... Ez dakigu zer altxor daukagun.

Ikasleak hizkuntza asko dakizkitenak dira. Badakite nor-nork ba dela, eskolan ikasten dutelako badela ergatiboa izeneko modu bat hizkuntza gutxietan erabiltzen dena. Hori, euskararen bidez, praktikan jartzeak ilusioa egiten die.

**Erraza al da Errusian euskara irakastea?**

Errazagoa egiten du beraiek duten interesak. Baina, zailta-

ANSOATEGI HERRIKOA
Falta direnak gogoan!
☎ 943 88 68 52 Elosegi, 15
LAZKAO

Iñausti
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbkl. KOLEGIATUA
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak
San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

suna dauka, hemen euskara irakasteko dugun materiala gaztelania dakitenentzat prestatu dagoen aldetik. Hasieran neronek materiala errusiarrentzat moldatu beharra izan nuen.

**Beraiek asko jakiteak, egiten dituzten galderak ere teknikoagoak izatea ekarriko du ezta?**
Bai eta konpromiso handikoak. Alde horretatik nik ere badut formazioa, baina, erronka handia da. Gainera kontutan hartu behar da hizkuntzalaritza ikasteko nota altua eskatzen dutela eta ikasleak maila handikoak izaten direla.

Adibidez, hikako alokutiboa esplikatu nienean, txundituta utziko nituela uste nuen eta batek esan zidan Dagestango hizkuntza batean bazegoela horrelako zerbait.

**Hizkuntza hutsa irakasten duzu edo hemengo ohiturak eta kultura ere lantzen dituzu?**
Saiatzen naiz pixka bat konbinatzen, baina ordu asko ere ez dira, astean 3 ordu izaten ditugu. Lehenengo kontestua izaten da, historikoa hizkuntzaren aldetik, geografikoa... Hizkuntza ikasterakoan ere, erreferentzi asko ateratzen dira kulturalak direnak, hori ezin da ekidin.

## "Oso herri gogorra da"

**Zu aurki itzuliko zara Moskura. Gustura al zaude bertan?**
Bai, paper batzuen zain nago itzultzeko. Esan liteke han bizi naizela eta hemen oporretan nagoela. Etxera itzultzeko gogoa ere badut, baina, hango lanarekin oso gustura nago.

**Oso desberdinak izango dira hango eta hemengo gizarteak.**
Bai, gainera hona etorri diren biak Moskukoak dira. Pentsa 10 milioi biztanleko hiri batetik 5.000ko herri batera. Baina oso gustura itzuli dira.

**Zer bizitza egiten duzu Moskun?**
Beste edozein unibertsitateko irakaslek egiten duena. Ez dituk klase ordu asko eta bitartean doktoradutza prestatzen ari naiz. Esan liteke lanik ez zaidala falta.

**Eskolak errusieraz ala euskaraz ematen dituzu?**
Hasieran errusieraz, baina pixkanaka geroz eta gehiago euskaraz eta urte t'erdi daramatzatenekin errusiera ia erabili gabe bukatu dut.



**Nolakoa da Errusiako egoera?**
Nahiko beltza, eta urte askotarako gainera. Erabat desegin-da dago, bakoitza bere aldetik dabil eta hura aurrera noiz aterako den inork ez daki. Gizartea erabat deseginda dago, ez dago lanik, fabrikak ixten ari dira, bertako produktuentzat ez dago irteerarik, turismoa ez dago garatuta... Baina beraien egoera ekonomiko txarra nolabaiteko duintasunez eramaten duen herria da, sufritzen ohituta dagoena. Herri gogorra.

**Hemendik mafiak eta horrelako kontuak entzuten dira.**
Egon badaude baina ez da hainbesterako. Zuk zure bizia egiten baduzu, printzipioz ez dago inongo arazorik. Sobietar Batasuna desegin zenean, urte batzuetan kontrol gutxiago egon zen eta mafiak sortu ziren. Baina, horiek dirua egin dute, bankuak zabaldu dituzte eta orain legalak dira.

**94an lehenengo aldiz joan zinenetik bertako egoera aldatu al da?**
Asko. Hasieran Mosku oso hiri grisa zen, ez zen hiri kapitalista bat. Urtetik urtera, kapitalismoa, diruaren mugimendua, denda dotoreak, koloretsuak gehiago nabari dira. Bertakoentzat oso garestia da eta hemendik joaten garenontzat ez da batere merkea. Dirua badago, baina esku gutxietan.

**Harremana sortzen hasia da beraz Lazkao eta Mosku artean.**
Abuztuan bi ikasle Maizpidera etorri dira Haberen beka baten bidez. Oso gustura egon dira, hemengo ohiturak ezagutu, hizketan soltatu...

Aurretik nire koadrilakoak ere egon ziren Moskun oporretan. Asko gustatu zitzaien. Oso desberdina da. Hemendik Europako edozein herrialdetara joan eta gutxi gora behera berdintsua da dena. Baina Errusia oraindik beste mundu bat da.

AMEBI Sagardotegia
Erretegi bezala irekita
* Eguneroko menuak * Plater konbinatuak
* Karta zerbitzua * Sagardotegiko menua
SAGARDOA TXOTXETIK
San Migel zoriontsuak!
Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

UNTXUNDEI garajea
OSINALDE karrozategia
☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

ZUZENKI AHOLKULARITZA
Abokatuak
Enpresen asesoria eta gestioa
etxekin
www.txekin.net
Etxebizitzen salmenta: Legorreta Beasain Orendain
Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta:zuzenki@euskalnet .net Elosegi, 16 LAZKAO

# Lazkao

# Sanmigelak

## Irailak 27, ostirala:

**19:00etan:** Sagardo dastaketa herriko elkarteek banatuta, taloak eta Koldo Iparragirre trikitixa eskolako trikitilariek alaiturik.

**19:30ean:** III. Gizonezko areto futboleko San Migel sariaren azkena.

**22:30ean:** Gozategi musika taldea.

## Irailak 28, larunbata:

**11:30-13:30era:** Gaztelu mugikorra, amerikar pista, gaztelu handia, pelota etxea, ludoteka....

**17:00-19:30era:** Haurren parkea.

**17:30ean:** Goierri beherako ezti lehiaketa. Eztia nola egiten ikusi eta dastatzeko aukera ere izango da. Gipuzkoako Erlezainen Elkarteak antolatuta.

**19:00etan:** Buruhandiak Antzar Gazteak txistulariekin.

**22:30ean:** Sakatrik musika taldea.

## Irailak 29, igandea: San Migel eguna:

**10:45ean:** Josetxo Imaz oroigarriaren II. korrikaldia.

**11:00etan:** Dantzari Txiki eguneko dantza taldeei harrera plazan. Beasaingo Aurtzaka, Lazkaoko Oin Arin, Gabiriako Goruntz, Zaldibiako Iztueta, Zumarraga-Urretxuko Irrintzi eta Legazpiko Gorosti dantza taldeak.

**12:00etan:** San Migel parrokian jubilatuei eskainitako meza, Lazkao abesbatzaren partaidetzarekin.

**13:00etan:** Dantzarien alardea plazan.

**14:00etan:** Ataungo Bittor jatetxean jubilatuen bazkaria. Gillermo Pikua, Ignazio Urdangarin eta Patxi Telleria soinujoleak alaitua.

**17:00etan:** Dantza taldeen emanaldia plazan.

**21:00etan:** Herri afaria pilotalekuan.

**20:00-21:00 eta 22:30-01:00etara:** Imuntzo eta Beloki trikitilariak.

## Urriak 5, larunbata:

**10:30ean:** Benjamin, alebin, infantil eta kadeteen San Migeletako pilota txapelketako azkenak.

**12:00etan:** Federatu gabe eta federatu nagusien San Migeletako pilota txapelketako azkenak.

## Goierriko ezti txapelketa



Gipuzkoako eta Euskal Herriko ezti txapelketan Goierriko zein eztik parte hartuko duten erabakiko da Lazkaon, irailaren 28an, arratsaldeko 5,30etan. Goierriko eztigileek beraien eztia , aurrez Erlezain elkartean eskuratutako kilo erdiko bi potetan aurkeztu beharko dute. Herritarrek ere eztia probatu ahal izango dute, Kaikuk eskainitako jogurt naturalekin batera. Era berean, eztiari buruzko erakusketa ere ikusgai egongo da Kultur etxean. Eztiaren prozesua, erlauntzak eta abar ikusteko eta ezagutzeko aukera izango da.

## Ikastaroak

Urritik ekainera bitartean, hainbat ikastarotan parte hartzeko aukera izango da. Irailaren 30ean amaitzen da izena emateko epea. Udaletxean bertan egin behar da izen ematea eta bertan jaso ahal izango da informazio gehiago (943805411-Miren). Ikastaro bakoitzaren kostua: 100 euro.

- **Egur taila:** Ostiraletan, 15:00-17:00.
- **Altzarien zaharberritzea:** Ostirala, 19:00-21:00.
- **Lorezaintza:** Ostirala, 16:00-18:00.
- **Oleoa:** Asteartea, 19:00-21:00.
- **Barruko dekorazioa:** Osteguna: 19:00-21:00.
- **Argazkigintza:** Asteazkena, 19:00-21:00.
- **Komikigintza:** Asteazkena, 17:00-19:00.
- **Haurren marrazketa:** Astelehena, 17:00-18:00.
- **Eskulanak:** Astelehena, 19:00-21:00.


MANUEL-ENEA
TABERNA
☎ 943 88 20 29
Elosegi, 5 LAZKAO

DORRAO
TABERNA
San Miel zoriontsuak!
LAZKAO

GERRIKO
taberna
Pintxoak
Plater konbinatuak
Afariak
Elosegi 16 ☎ 943 889943 LAZKAO

ESTANKO
TABERNA
Sanmiel zoriontsuka denoi!
☎ 943 880 233
Elosegi, 17 LAZKAO

GIROA
taberna
Pintxo ederrak jateko aukera
☎ 943 88 77 40
Areso, 6 LAZKAO

taberna
Uhaitz, 2 ☎ 943 88 71 97
LAZKAO

## Gaintza

# San Migel jaiak

### Irailak 27, ostirala:

**Eguerdiko 12etan:** Hasiera suziriekin.

**Arratsaldeko 6etan:** Haur jolasak.

**Iluntzeko 8etatik 10,30 arte:** Sagardo dastaketa, norberak ekarritako janariarekin.

**Ondoren** trikitixa Ansorregi taldearekin.

### Irailak 28, larunbata: San Miel bezpera:

Herriko artista gazteen erakusketa egun osoan 13:00 etatik 19:00etara, Frontoi ondoko Kultur-lokalean.

**Eguerdiko 1ean:** Toka txapelketa herritarrentzat.

**Eguerdiko 2etan:** Herri bazkaria, Epelde eta Larrañaga trikitilariak eta Larrañaga eta Zeberio bertsolariekin

**Arratsaldeko 3etan:** Plater tiraketa herritarrentzat.

**Arratsaldeko 5etan:** Poxpolo, Mokolo eta konpainia pailazoak.

**Ilunabarreko 6,30etan:** Mondeju eta ardoa neurrian.

**Ondoren** erromeria goizalderarte Epelde eta Larrañagarekin.

### Irailak 29, igandea: San Miel Eguna:

Herriko artista gazteen erakusketa egun osoan 12:00 etatik 19:00etara, Frontoi ondoko Kultur-lokalean.

**Goizeko 11etan:** Meza nagusia.

**Ondoren:** Jubilatuentzat hamaiketako.

**Eguerdiko 12etan:** XIX. Txirrindulari igoera, Agurtzane eta Jon Elustondo trikitilariek alaiturik.

**Arratsaldeko 4,30etan:** Artzain zakur lehiaketa. Parte hartzaileak: Jose Antonio Ormazabal (Gaintza) Mendi txakurrarekin; Andoni Izeta (Usurbil), Alai txakurrarekin; Aitor Lizarazu (Urretxu), Xerpa txakurrarekin; Bittor Bengoetxea (Galdakao), Luki txakurrarekin; Jon Razkin (Lakuntza), Argi txakurrarekin; Joseba Gorriti, Jai txakurrarekin.

**Arratsaldeko 6,30etan:** Urdanetan dantza taldea.

**Ondoren** trikitixa, Agurtzane eta Jon Elustondo trikitilariekin.

### Joxe Antonio Ormazabal eta Mendi



San Migel egunean egingo den artzain txakur lehiaketan parte hartuko dute. Joxe Antonio hernaniarra da jaiotzez eta 20 urte daramatza bere kontura artzain. Beti izan ditu txakurrak gustuko baina lehiaketa batean bakarrik parte hartu du. *"Artzaina naiz eta beti prestatu ditugu txakurrak ardiekin ibiltzeko. Border collie arrazako txakurra ekarri eta zakurren heziketa ikastaroa egin nuen eta ikastaroan ibili ginenen artean herrian lehiaketa egitea pentsatu nuen eta horrela egingo dugu San Migel eguneko erakustaldia. Hurrengo hilaren 12an lehiaketa batean parte hartzeko asmoa ere ba dut"*, dio Joxe Antoniok.

Artzainarentzat garrantzitsua da esaneko txakurra izatea *"laguna, lanabesa dena bihurtzen da txakurra, guztiz beharrezkoa"*. Erakusteko txakurrak gustatzea, gogoa eta pazientzia behar dira. 4 hilabete ingururekin obedientzia irakasten hasten da, sokatik lotuta jarri eta etzan esandakoan etzaten, zerbait usaintzen hasten bada galarazi... Gero 5 bat hilabeterekin hesi baten barruan ardiak jarri eta txakurra inguruan ibiltzen da, etzan eta ezkerrera eta eskuinera joaten irakasten zaio. Ardiak ezkerrera joateko, txakurrari eskuinera esan behar zaio. Gero metro inguruko 'manga' batean jartzen dira ardiak eta txakurrari ardiak ekartzen irakasten zaio.

Border collie arrazako txakurrak oso ezberdinak dira. Joxe Antoniori ere kostatu zitzaion txakur hauekin lan egiten ikastea. Lana segituan ikusten dute. *"Mendik gogo ikaragarria du eta beti galarazten aritu behar da. Maitekorragoak dira, esanekoagoak. Hemengo artzain txakurrak, berriz, gogorxeagoak dira"*.


URBITARTE
tolare
sagardotegia



Erretegi modura zabalik
Sagardoa txotxetik dastatzeko aukera
Tel.: 943 18 01 19
Ergoiena Auzoa ATAUN

GAINTZAKO UDALA
Jai zoriontsuak herritarroi!

OTEÑE
ERRETEGIA
Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabean
Larraitz bidea GAINTZA ☎ 943 88 98 48



Zatoz Sanmigeletan Gaintzara
bertako mondejuak probatzera

Ataun

# Kirol jarduerak aukeran

Eguzkiak oraindik ere uda bukatzeke gogorarazten digun arren, irailean aurrera goaz eta Ataungo Udalaren Kirol sailak aurkeztu berri ditu 2002-03 ikasturterako kirol jarduerak. Aukeran honakoak:

**60 urtetik gorakoentzat deialdi berezia:** Azken bi urteetako beherakada ikusirik, dei berezia egiten zaizue 60 urte beteak dituzuenoi. Jarduera honi eutsi nahian, goiza ala arratsaldea aukeran jarri zaizkizue. Goizez, 9.15-10.15era, Zelaieta azpiko aretoan, berogailu eta guzti. Arratsaldez nahiago duzuenontzat, 6-7etara, kiroldegian izango duzue aukera.

**Aerobik:** Erritmo biziak gustuko dituzuenok, iluntzeko 7-8etara, astean hiru iluntzetan duzue zita San Gregorioko Elkargunean.

**Mantenduko soinketa:** (60 urte bitartekoentzat) Astean hiru egunetan emango da Auzoeta kiroldegian eta Zelai frontoian. Auzoetan: Astelehena, asteazkena eta ostegunean, arratsaldeko 6-7etara. Zelain berriz, astelehen, asteazken eta ostiraletan, bazkalondoan, 14:45-15:45etara.

**Yoga:** Saio hauetan parte hartu nahi duzuenok, eman izena eta taldea osatu ostean erabakiko da ordutegia.

**Gimnasioa:** Astean zehar, astelehenetik larunbatera irekita egongo da bakoitzari ondo datorkion ordutegia aukeratu dezakeelarik. Banaka nahiz taldeka jarduteko aukera eskaintzen da. Taldekako aukeran programa eskaintzen da.

Aukerotako batean interesa duzuenok, zuzen zaitezte lehenbailehen Auzoetan Udal Kiroldegiko arduraduna den Pako Urrestarazurengana (943.18.03.84). Izen emate epea irailaren 25ean amaitzen da eta hortik kanpo ez da izenematerik onartuko.

## Kiroldegiko erreserbak

Kiroldegia erreserbatu nahi izanez gero hemen dituzue prezioak: **Pilota kantxa**: egunekoa 6 euro orduko; 3 hilabetekoa: 4,80 euro. **Futbito kantxa,** orduko: Egunekoa 12 euro; 3 hilabetekoa: 10,80 euro. **Gimnasioa:** 9 hilabetekoa: 27 euro. **Aerobik:** 9 hilabetekoa: 135 euro. **Mantentzeko soinketa** (Helduak). 3 hilabetekoa: 27 euro. (Jubilatuak): 3 hilabetekoa: 9 euro.

*Agurtzane Bikuña*

## Argazki zaharren bila

Etxeetan jaso berri dugu, bere liburua argitaratzeko azken prestaketak egiten ari den Maximo Aierbe argazki zaharren bila dabilela dioen Udalaren bandoa. Izan ere, Maximoren "Ataungo Kanta Zaharrak" izeneko lana IV. Ataun Aztergai Bekaren irabazle suertatu zen. Ordu askotako lanaren ostean, amaitua du lana Aierbek eta orain hori apaintzeko Eguberri giroa, baserri lanetan, umeak jolasean edo jolas kantetan, umea loarrarazteko kantetan....agertzen diren argazki zaharren bila herritarrengana jotzea erabaki du. Hauetako "relikia"ren bat etxean izango bazenu, udaletxera eramateko eskatzen da irailaren 21a baino lehen. Dudarik ez da, argazkiak gero itzuli egingo direla eta horrez gain, emaileari bere esker ona azaltzearren, bere izena argazkiaren azpian agertuko da.

## 'Ataunen zer berri?' Web orria interneten

Jexux Aizpuruak abian jarri zuen "Ataunen Zer Berri? Ataundarren arteko sarea munduan" web orriaren 8.alearen kopia dut eskuartean. Teknologia berriek eskaintzen dizkiguten abantailez baliatuz, Ataungo berriak mundu osora zabaltzeko ideia izan eta ardura hori hartu du ataundarrak. Berriak zabaltzeaz gain, mundu osoan barreiaturik dauden ataundar eta ataundar jatorridunen elkargune izan asmoa du gune honek. Horren isla dugu "Ataundarrok ataundarron propaganda" izeneko atal estreinatu berria. Bertan Ataundik kanpo bizi diren ataundar edo ondorengoek dituzten ostatu, hotel, taberna...edo bestelako zerbitzuen zerrenda osatzeko asmoa du Jexuxek. Horrez gain, "Zenbat ataundar ote gara munduan?" atala "Ataundarrak hasi dira nonahitik azaltzen" atalak, besteak beste. Baina ez hori bakarrik, joan den abuztuko alean, Ataungo albisteez gain "Aralar eta artzaintza", " Artzainen bizimodua", "Otso kontuak", "Oporretako berri", "Bertso txokoa" eta beste hainbat atal eta berri agertzen baita. Lan bikaina Jexux egiten ari dena, dudarik gabe. Hau guztia eta gehiago aurkituko duzue hilabetero ataunjexuxirun@euskalnet.net zuzenbidean.

## Atseden-Tokitik eskurtsioan kostaldera

Datorren irailaren 26an kostaldera bidaia antolatu du Atseden-Toki elkarteak. Goizeko 9etan Kaxetatik irtengo da autobusa eta San Gregorio eta San Martinen eskurtsiozaleak jaso ondoren 9,15etan irtengo da Hondarribiko Guadalupe aldera. Bertan gosaldu, bakoitzak berea eraman beharko du nahiz eta edaria han zerbitzatuko den, eta Biarritz aldera. Hemendik, bazkalordurako Oiartzungo Gurutze Berri jatetxera. Bertan eskainiko den menua: entremes bariatuak, marisko krema, legatz frijitua eta hojaldre tarta kafe konpletoarekin. Opari zozketaren ondoren, Zarautz aldera arratsalde pasa. Joateko asmoa duzuenok, 20 euroren ordainetan bazkideek eta 26 eurotan bazkide ez direnek, eman iezaiozue izena hauetako kideren bati, datorren irailak 20, ostirala, baino lehen: San Martinen elkartean bertan;San Gregorion Juan Belokiri; Ergonen Maria Agiar-i eta Maria Eskisabeli Aian.

## Labur-labur

Joan den astean izan genuen Inazio Izagirre herritarraren heriotzaren berri. Doluminak sendiari.

## Zerain



# Raid arrakastatsua

Hilaren 8an jokatu zen Zerain I. Raid-ean partaidetza bikaina izan zen, 20 zaldik hasi zuten proba hau eta 10ek lortu zuten amaitzea, beste denak Beundan zeuden kontrolean atzera botata edo bidean herren geldituta erretiratu ziren.

Goizeko 10etan eman zitzaion hasera herriko plazan eta egun gehiena mendietan zehar ibili ondoren, iluntzeko 6,30ak ezkero iritsi zen lehen partaidea, Sofia Perez De Zabala 'Pequeño Jefe' izeneko zaldiarekin, kontrola pasa ondoren bera izan zen proba honen irabazlea.

Lasterketa honek ikusmira handia sortu zuen eta Zeraingo plazan jende asko bildu bazen, Beundako zelaietara inguratutakoak ez ziren gutxiago izan.

### Feri ekologikoa

Irailaren 22an, Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren VIII. Azoka egingo da.

Goizeko 9etan hasi eta eguerdiko 14ak arte herriko plazan, barazki, fruitu, barazki kontserba, ogia, gazta, eztia, ardoa,arrautzak, olioa, esnea, sendabelarrak, mermelada, eta goxoki ekologikoak salgai izango dira.

Arratsaldeko 5,30etatik Abemarikoak jo arte Xapre trikitilaria eta herriko Ttun Ttun joleekin antzinako erako erromeria izango da.

### Hitzaldiak

Irailaren 27an gaueko 9,30etan eta 28an eguerdiko 12,30etan, Zerain Dezagun Fundazioak antolatuta, hitzaldia izango dira kultur etxean, bertan landuko diren gaiak ondorengo hauek dira:

✔ Zeraingo meategietako trena.

✔ Ibilbidearen azalpena, trenaren ezaugarriak etab.

✔ Proiektuaren garrantzia Zerain eta Goierriko turismorako.

✔ Ekonomiaren dibersifikazioa.

✔ Antzeko beste tren batzuen kokapena,egoera etab.

✔ Turismorako garrantzia, ingurunearen egoera.

✔ Errentagarritasuna.

✔ Aragoi inguruko meategien azalpena / F. Goyaren historiaren laburpena.

**Hizlariak:** Jose Mari Valero, Trenaren lagunak (Zaragoza). Rafael Sierra, Sollerko trena (Palma Mallorca). Tomas Morell,. Balear irletako Serveis trena (Palma Mallorca). Juajo Olaizola, Azpeitiko Trenaren Museoko lehendakaria. Juan Mari Iztueta, Zeraingo Fundazioa.

Egun osoan zehar, lixiba antzinako erara, linoaren prozesuko erakusketa, ehungintza, bolilloak, gorulariak, hazi ekologikoak,erlezaintza eta txondorra sutan ikusteko aukera izango da. Gozogintza, kandela eta fieltro tailerrak ere egongo dira, nahi duen guztiek bertan parte hartu ahal izango dute, bati bat haurrek denbora pasatzeko aukera ederra izan ohi da.

### Aerobic

Datorren hilabetean Aerobic egiten hasteko asmoa dago, bertan parte hartu nahi duenak hilaren 30a baino lehen Mandioa dendan izena eman behar du. Ordutegia eta egunak, osatzen den taldearen arabera antolatuko dira.

### Zerain.com

Irailaren hasieran jarri zen martxan Zeraingo web orrialdeari lotuta eta prezioak balio du lemapean zerain.com denda birtuala. Bertan, Mandioa dendan saltzen diren kalitatezko eta artisautzako hainbat produktu ezberdin internet bidez erosteko aukera izango da.

Irailaren 17an herritarren aurrean aurkeztu ondoren, irailaren 27 eguerdian Eusko Jaurlaritzaren Donostiako egoitzan aurkezpen ofiziala egingo da.

*Mari Flor Mendizabal*


SILVIAMIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

GENERALI
GENERALI Aseguroak
IÑAKI ARIN BAZTARRIKA
Oriako Pasealekua,20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

berriz aranburu
ERROPADENDA
Nagusia, 8 ☎ 943 88 04 53 BEASAIN

LOINATZ
Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari, ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN

Itsasondo

# Herriko jaiak

**Irailak 20, ostirala:**

**16:30ean:** Zinta karrera.
**18:30ean:** Futbol derbia: Itsasondo - Arama.
**21:00etan:** Herri afaria.
**Ondoren,** erromeria goizaldera arte.

**Irailak 21, larunbata:**

**10:00etan:** Altzagarateko igoera.
**12:00etan:** Hamaiketakoa.
**Ondoren,** soka dantza.
**16:00etan.** Haurrentzat txirrindu proba, Beitiko igoera.
**18:00etan:** Herri kirolak.
**23:00etan:** Kontzertua Ea, Ttakunpa eta Loud&Lone taldeekin.
Mozorro gaua (sari bereziak egongo dira).

**Irailak 22, igandea:**

**11:00etan:** Toka txapelketa.
**14:00etan:** Bazkari herrikoia: txerrikume jana, sagardo dastaketarekin.
**19:00etan:** Patata tortila txapelketaren hasiera.
**21:30ean:** Sukaldari txapelketaren sari banaketa.
**23:00etan:** Kontzertua.
Egun osoan herrian zehar txaranga ibiliko da eta haurrentzat jolas parkea izango da.

## Eskulan ikastaroa

Urriaren 2tik aurrera, asteazkenero, Udaletxean eskulan ikastaroa izango da. Ordutegia: 14:45etik 16:45era. Gauza asko ikasteko aukera izangoda: bainikak, puntu guruztua, gantxiloa...

*Edurne Ayuso - Leire Telleria*

# Irailak 21: Sustraiez Blai musika jaialdia

## *Ea!, Loud&Lone eta Ttakunpa taldeak arituko dira*

Herriko festen barruan, bihar, irailak 21, gaueko 10,30etan, 'Sustraiez Blai' musika jaialdiaren bigarren edizioa izango da. Dohainik izango da jaialdia eta bost bat orduko iraupena izango du. Musika tradizionala eta joera berriak uztartzen dituzten taldeak izango dira protagonista. 'Sustraiez Blai' jaialdiaren antolatzaileek, goierritarrei, jai giroko musika talde koloretsuak aurkeztu nahi dizkie. Hiru talde izango dira aurten protagonista: Ttakunpa, Loud&Lone eta Ea!. Guztien ezaugarria, sustrai sakonak eta gaur egungo sonorizazioen nahasketa.



**Ea!** (Andaluzia). Flamenkoa + world music. Ea! taldearen musika andaluziar kantagintzan oinarritzen da batez ere, baina beste musika mota askorekin nahastuta: rock-etik flamenkora eta Karibetik Afrikara. Ospe eta kontzertu handietarako giltza izan den 'La vida' izeneko beraien hirugarren diskoa aurkeztuko digute. 'Sustraiez Blai' jaialdiarentzat ohore bat da talde honen etorrera.



**Ttakunpa.** (Euskal Herria). Afrikar perkusioa, txalaparta eta dantza. Duela gutxi sorturiko Zumaiako talde hau 10 lagunez osatua dago eta afrikar perkusioa eta Euskal Herriko txalaparta nahasten ditu. Abesti propioak eta Afrikako abesti herrikoiak jotzen dituzte eta kontzertuetan afrikar dantzetan oinarrituriko koreografia propioak eskaintzen dituzte.

**Loud&Lone.** (Kantabria eta Euskal Herria). 70etako reggae eta dub-a. Kantabriako bikote honek reggae klasikoa eta 70.etako dub soinua jorratzen du. Zuzenean jotzeko, Euskal Herriko eta Kantabriako reggae talde desberdinetako 8 partaidez osaturiko 'The sound dealers' bandaren laguntza izaten du. Abeslariaren ahotsa apartekoa da.



Zegama

# Ikastaroak martxan

Gizarte Zerbitzu batzordeek honako ikastaro hauek antolatu dituzte:

## Soin heziketa ikastaroa

Ikastaro hau jubilatu eta pentsiodunentzat dago zuzendua: Urriaren 1ean hasiko da eta astearte eta ostegunetan emango da 10:30etatik 11:30etara. Irakaslea Joakin Elkoro izango da.

## Erlajazio ikastaroa

Aintzane Diez zumarragarrak emango du ikastaro hau, urrian hasiko da eta taldearen arabera erabakiko dira bai ordutegi eta egunak ere.

Ikastaro hauetako batean izena eman nahi baduzu dei egizu Udaletxera 943 801351 telefonora (Edurne eta Begoña) .

## Kultur Etxeko ikastaroak

Ikasturtearekin batera, Kultur Etxean hainbat tailer martxan jarriko dira urrian. Horretarako izenemateak ireki dira herritarrak nahi duenean izena eman dezan.

## Eskulanen tailerra

Tailer hau Iñaxi Urreagak zuzentzen du, aurten ostegun arratsaldetan irekiko du eta izenematea urriaren 4an bukatuko da.

## Pintura tailerra

Tailer hau, Maria Luisa Gorrotxategik zuzenduko du, astelehen arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara irekiko da. Izenematea, urriaren 4an bukatuko da.



## Egur tailaketa ikastaroa

Ikastaro hau Jabier Arrietak emango du eta izenematea urriaren 4an bukatuko da.

## Aerobic ikastaroa

Bestalde, Mari Solek aerobic ikastaroa ematen du kiroldegian eta nahi izanez gero berarengana zuzendu. Urriaren 3an hasiko da, astearte eta ostegunetan, 9:15etatik 10:15etara.

*Edurne Albizu*

## X. Mus txapelketa Tartalon

Datorren irailaren 27 (lehen tanda) eta urriaren 4an (finala) jokatuko dira X. Mus Txapelketa burutzeko. Izenematea urriaren 27an egin behar da gaueko 9etan eta txapelketa 21:30etan hasiko da. Mus txapelketa hau 8 errege, 8 hamarreko eta 4 usteletara jokatuko da. Izenematea, berriz bikoteko 12 euro izango da.



## Aitor Perez Arrieta

Azken aldi honetan garaipen galantak lortzen ari da txirrindulari zegamarra. San Bartolometako proban garaipena lortu zuen eta harrezkero ere parte hartu duen frogetan goiko postuetan ibili da. Leongo Itzulian 3. geratu da, Galiziko Itzulian 2. postuan eta korritu berria den Goierriko Itzulian ere 2. postua lortu du. Gainera aipatu, Goierriko Itzuliko lehenengo frogan 3. postua, bigarren frogan 4. postua eta azken frogan 1.go postua lortu zuela. Zorionak eta segi horrela!!!

## IX. Kantu festa

Datorren irailaren 28rako IX. Kantu Festa antolatu du Orkatz Abesbatzak. Honezkero Zegaman errotzen ari den kantuaren eta musikaren festa egun honetan, hainbat ekintza burutuko dira,egunaren programak diona jarraituz. Arratsaldez, **16:15etan,** Txarapeko plazan elkartu, kantuz eta musikaz festari hasiera emanez. Ondoren, kalejiran herriko trikitilari gazteekin plazara abiatu. **17:00etan,** adin guztietako "haurrentzat" talde jokoak herriko plazan. **18:30ean** herriko musikariekin, buruhandien eta erraldoien kalejira eta **19:30ean** herritar guztientzat txokolate jana plazan. Eguraldi txarra izanez gero festa polikiroldegian izango da.

Gauez, berriz, **20:30ean** Kantu poteoa, Ostatu tabernatik abiatuta. Eta festari bukaera emateko, **21:30ean** Kantu afaria. Afalondoan euskal kantuak abestuko dira eta bildutako bakoitzari hogeita bost kantu herrikoi biltzen dituen kantu liburuxka bat oparituko zaio.

Afarira joan nahi duenak, jakin, txartelak botikan daudela salgai eta hauek hartzeko azken eguna irailaren 25a, asteazkena, dela. Telefonoz ere eska daitezke (Tnoa. 943 801127).

Beraz, kantua eta musika gustuko dituzuenok, larunbatean Zegaman baduzue aukera ezin hobea. Gonbidatuta geratzen zarete denok.

Bide batez, Orkatz Txiki eta Orkatz abesbatzetako kantariek beraiekin batera abesteko gonbidapena luzatu nahi diote kantua eta abestea gustuko duen edonori (haur, gazte eta heldu) hasiberria duten denboraldi honetan abesbatzetan parte hartu dezan. Honetarako edozein partaideekin harremanetan jarri eta entsaio orduak beste zenbait argitasun izango du interesdunak. Benetan merezi omen du. Beraz, badakizu kantuaren inguruan ikasi, gozatu eta lagunarte bero bat izan nahi baduzu hementxe duzu berritutako eskaintza paregabea.

Harremanetarako telefono zenbakiak: Nekane Rodriguez (943801015) eta Xabier Otaegi (653015719)

## Gripearen aurkako txertoa

Gripearen aurkako txertoa jartzen hasiak dira dagoeneko herriko osasun zentroan. Txerto hau, gaixotasun kronikoren bat edota 65 urtetik gorako pertsonei dago zuzendua batez ere.

Altzaga

# San Migel jaiak

### Irailak 27, ostirala:

**20:00etan:** Txupinazoa

**20:30ean:** Perretxikoen inguruan hitzaldia eta diapositiba emanaldia Arantzadi Zientzia Elkarteko, Jose Mari Zapiaienen eskutik Artea elkartean.

**21:30ean:** Afaria Artea elkartean.

### Irailak 28, larunbata:

**12:00etan:** Perretxiko erakusketaren hasiera, egun guztian zehar izango da ikusgai.

**17:00etan:** Haur jolasak.

**20:30ean:** Herri afaria (tikeak salgai).

**23:00etan:** Xukan taldearen eskutik 'Iturrian zer dago' ikuskizuna Artegain pilotalekuan.

**Ondoren:** Ansorregi eta Larrañagarekin erromeria.

**Goizaldera:** langostino jatea.

### Irailak 29, igandea, San Migel eguna:

**10:00etan:** Goiz eresia Alegiako txistulariekin.

**11:00etan:** Meza nagusia. Meza ondoren ikusgai izango dira eraberritutako erretaulak.

**12:30ean:** Artegain pilotalekuaren inaugurazio ekitaldia.

**13:00etan:** Afizionatu mailako pilota partida: Ropón eta Garmendia, Iriarte eta Bernaras-en aurka.

**18:00etan:** Herri-kirolak: Luis Txapartegi eta Goenatxo, Daniel Vicente eta Ostolazaren aurka. Egin beharreko lana : kana erdiko bi enbor eta 175 kiloko kubikoaz lau altxaldiko lau saio. Ondoren harrijasotzaileen erakustaldia izango da.

**19:00etan:** Sagardo eta txistorra dastaketa. Aulia (Legorreta), Zabala (Aduna), Begiristain (Ikaztegieta), Olagi (Altzaga), Aburuza (Aduna),

**21:00etan:** Lazkanoiturburu trikitilariak.



## Artegain pilotalekuaren inaugurazioa

Irailaren 29an, San Migel egunean, ekitaldi txiki batez eta ondorengo pelota partiduaz, inauguratuko dira pilotaleku berria eta bere inguruan egokitu den plaza.. Bere garaian herritarrek auketaru bezala "Artegain" izango du pilota leku honek izena, eliza atarian dagoen artearen erreferentzia hartuz. Orain dela 10 urte helburu zirenak pixkanaka gauzatzen ari dira, Altzaga garai berriei aurre gogor egiten ari denaren testigu dira azken obra hauek. Urruti Zelai auzoan 27 etxebizitza eraiki dira eta herrigunea txukunda da, pilotaleku estalia, haurrentzako parkea, plaza, aparkalekuak, etab.


ALTZAGAKO UDALA

*Herritar guztiei eta egun hauetan bisitatuko gaituzunei festa alai eta zoriontsuak opa dizkizuet.*

*Alkateak*

Olagi Sagardotegia



Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

✆ 943 88 77 26 ALTZAGA

IBAI ONDO



AROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurrira

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

Ordizia

# Kalitatea garaile euskal jaietan

Hainbeste lehiaketen inguru-marian baserritarrek aurkez-tutako produktuen kalitatea aipatu gabe ezin utzi. Gana-du, barazki, fruitu, ardo, lana-bes, perretxiko, oilo, odolki, gazta eta bertako beste hain-bat produktu ikustea ohiko bihurtu da euskal jaietan egi-ten den peri berezian.

## Odolki eta sukaldari lehiaketak

Peri bereziaren aurretik, aste-artean, bertako produktuak erabiliz elkartearteko XII. su-kaldaritza lehiaketa jokatu zen. Donostiarrak izan ziren oraingoan ere nagusi, Lasa-lletarrak elkartekoak, baina herriko elkarteek ere euren dohainak erakutsi zituzten lehia handiko saioan bigarren eta hirugarren postuak lortuz. Pablo Markiegi eta Anjel Amolategi izan ziren Larrun-Arri Elkarteko ordezkariak eta Erramun Amundarain eta Andoni Eskisabel, berriz, Irriki Elkartea ordezkatu zu-ten sukaldariak, hurrenez hu-rren aipatu postuak eskuratu zituztenak.

Goierriko odolkiek tartea ere tartea izan zuten euskal festa hauetan eta honen aitza-kiaz antolatutako VIII. lehia-ketan Manuel Barandiaran herritarrak aurkeztutako odolkiek jaso zituzten puntu-rik gehien (ikus argazkia). Honenbestez, Kale Nagusian harategia duen Manuelek, hain jaki goxoa prestatzeko formula egokia baduela era-kutsi du berriro ere, iaz lehia-keta bera eta Beasaingoa ere irabazi baitzituen. Ormaizte-giko Iñaki Camposen atzetik Bustuntza auzoko Iosu hara-tegiko odolkiek eta Juan Mu-jikarenek (Gipuzkoa Kalea eta Kale Nagusia) jaso zituz-ten sariak.

## Enkanteak ikusmin handia

Eguna argitzearekin batera hasi ziren baserritarrak iris-ten. Aurreko egunetan udale-txeko langileek herri-gunean zehar ipinitako postuak hartu, atondu eta lehiaketa desberdi-netako epaimahaikoen zain. Behin sariak jasota produk-tuak saltzeko garaia iritsi eta eguerdi partera erretirada. Ai-patu bezala ez zuten batere erraza izan epaimahaikoek sari banaketa. Aurkeztutako produktuak asko izan ziren eta kalitate handikoak gaine-ra. Honela ondoko koadroan agertzen direnak izan ziren lehiaketa desberdinetako sa-riak eskuratu zituztenak.

Baina bada denetan nabar-mentzen den lehiaketa eta ho-ri gazta lehiaketa da. Goiz osoan lehiaketara aurkeztuta-ko 57 gaztak dastatu ondoren, Zeraingo MªAngeles Iñurra-tegik aurkeztutako gazta zela onena erabaki zuen epaima-haiak.




*Manuel Barandiaran eta bere emaztea, odolki lehiaketako irabazleak.*

Eta hasi da enkantea. Bos-garren gazta erdi saritua au-rrena, laugarrena hurrena eta horrela zeraindarraren gazta erdiari txanda iritsi arte. 2.000 euro batek, laster bate-an 3.000ra iritsi eta hortik au-rrera nor baino nor. Azkenik 4.100 euroko oihua bota Jon Idiakez, Angel Uranga mar-golariaren ordezkariak eta gazta erdia lortuta. Jendearen txaloaren artean errekor be-rria ezarriz amaiera eman zi-tzaion peri bereziari.

Ganadua kamioi gainera, gauza bera soberan geratuta-ko barazki eta abarra eta pilo-talekua garbitu bezain pronto pilotarien txanda. Koka-Ba-rriola Aimar Olaizola-Pas-cualen aurka. Santa Ana jaie-takoarekin batera herrian egi-ten den pilota jaialdirik ga-rrantzitsuena. Euren nagusi-tasuna erakutsiz Koka eta Ba-rriola nagusitu ziren. Bitarte-an herri kirolen ikuskizuna Joxemiel Barandiaran Plazan.

## Jaiak amaitzeko kantuan

Asteazkeneko peri berezia al-de batera utzita asteburuan ere izan zen zerbait euskal jaietan. Ostiral iluntzean kan-tu afaria antolatu zuten Hitza-ro Euskara Elkartekoek eta prebisioak betez Enparantza nagusia bete zen. Denentzako otartekorik izan ez bazen ere liburuxka denek izan zuten eta eztarria urratzeraino han aritu ziren euskal kantuak abestuz zahar eta gazteak.

Larunbatean Jon Maia, Je-sus Mari Irazu, Nerea Elus-tondo eta Andoni Egaña ber-tsolarien txanda izan zen. Jo-su Goikoetxeak gidatuta in-guruko bazter eta txokoak na-hastu zituzten bertsolariek Herri Antzokira hurbildu zi-ren bertsozaleen gozamene-rako. Eta igandean Lazkao Txiki XI. Bertsopaper Lehia-ketako sari banaketarekin ba-tera amaitu ziren aurtengo euskal jaiak. Aipatu egun ho-netan Oiangun egiten zen erromeria antolatu gabe gera-tu dela aurten baina dantza-riek izango dutela euren do-hainak erakusteko aukera Udalak erabaki gabe daukan data batean.

## Oharra

Goiztiri AEK-k euskal jaieta-ko peri berezian antolatutako bertako produktuen zozketan saridun suertatu den zenbakia 0.750 izan da. Boletoa due-nak dei dezala 943-889174 zenbakira.

## Sarituak

**Gazta lehiaketa:** 1. MªAngeles Iñurrategi (Zerain).

**Asteroko periko baserritarren fruitu eta barazki lehiake-ta:** 1. MªJesus Mujika (Baliarrain).

**Fruitu lehiaketa:** 1. Maddi Iradi (Hernani).

**Barazki lehiaketa:** 1. Tomas Larrañaga (Biolur).

**Probintziz kanpoko fruituen lehiaketa:** 1. Jose Etxeberria (Gatika).

**Euskal oilo lehiaketa:** 1. Jose Antonio Maguna (Zalla).

**Ganadu lehiaketa:** maila desberdinetan sarituak: Pedro Ka-tarain (Idiazabal), Antonio Agirrebarrena (Irun), eta Prontxio Urkia (Idiazabal).

*Aitor Calvillo*

## Gabiria



# Eskolara itzulera

Oporretako egunak atzean utzita, pasa den irailaren 9an ekin zieten Balentzategi herri eskolako haurrek 2002/03 ikasturteari. Itzulera xamurragoa izateko, aidanez, goizetik bakarrik ibili dira bi aste hauetan, eta astelehenetik aurrera ohiko ordutegira egokituko dira, goiz eta arratsalde.

Eskolaurretik seigarren mailara bitarteko irakaskuntza-eskaintza du herri eskolak, eta 22 haurrek dihardute bertan ikasten, hiru gelatan banatuta: bi urtetik laura artekoan txikienak, bost urtekoak 2. eta 3. mailakoekin beste batean, eta hirutik seigarrenera zaharrenenean. Lehen aldiz eskolan bi urteko bi ume ere hasiko dira urritik bertatik.

Aurreko kurtsoko lau irakasleek jarraituko dute lanean, Ane Miren zuzendariak, Rafak, Mª Eujeniak eta Garbiñek, alegia. Azpimarratzeko moduko berrikuntza ezarriko da gainera hizkuntzen alorrean: hiru urterekin hasita gaztelania eta ingelesa ikasiko dute haurrek, euskaraz gain.

Ikasi eta ikusi beharrekoak eskolako hormetatik kanpora ere badirela-eta, irteerak antolatzen hasiak dira dagoeneko. Datorren asteartean, esate baterako, Donostiako belodromora joatekotan dira Zinemaldiko filme bat ikustera. Ondo hasteak ere asko balio baitu.

*Aimar Maiz*

### Mendi irteera

Aurreko igandean Urkiolatik Anbotora zegoen antolatua mendi ibilaldia. Giro ederrarekin, 37 laguneko taldea osatu zen laugarren irteera honetara.

### Odol ateraldia

Odol emaile direnei eta izan nahi luketenei deia egin die Gipuzkoako elkarteak premiazko ateraldi baterako. Irailaren 26an izango da, ostegunarekin, Ormaiztegiko anbulatorioan. Ordutegia arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara.

### Azokak

Uda kanpoko lanetarako utzi ostean, azoken denboraldia gainean da berriz, Ordiziako peri bereziarekin hasita. Honako honetan, sariei dagokienez, Bekoetxeko baserrikoek ekarri dute titulu bakarra, barazki eta fruituetako hirugarren postuarekin.

## Mutiloa

# Lierniko festa ondorenak

Eguraldiak erdizka lagundu bazuen ere, jende ugari gerturatu zen Liernira, batez ere bere egunean, irailaren 8an.

Egun horretako ekitaldirik nagusienak txirrindulari proba eta usakume lehiaketa izan ziren.

### Txirrindulari proba

Lehenengoari dagokionean, esan, Lierniko Txirrindulari Elkarteak antolatzen duen proba honetan 47 txirrindularik parte hartu zutela. Lehenik eta behin, 62 km.ko ibilbidea egin zuten eta hiru lehenengoak, hurrenez hurren, Iñigo Andreu, Iban Gonzalez eta Jose Luis Urzelai izan ziren. Ondoren erlojupeko lasterketa egin zuten, 4 km.ko ibilbidea, Seguratik Liernira eta hemen Oinatz Munduate, Iñigo Andreu eta Ekaitz Izagirre izan ziren hiru lehenengoak. Eta probetako denborak kontuan hartuz, sailkapena honela geratu zen: 1. Iñigo Andreu, 2. Iban Gonzalez eta 3. Jose Luis Urzelai. Herritarren artean, Asier Izuzkiza izan zen lehenengoa, 19. tokian. Taldeka berriz, Muebles Ordizia, Ulma eta Bruesa izan ziren hiru lehenengoak.

### Usakume tiraketa

Bestalde usakume tiraketan, tirozale askok bota zuten, 240 guztira eta hiru lehenengoak, Segundo Ibarburu, Anjel Alberdi eta Esteban Zendoia. Herriko eta Aitz-buru elkarteko lehenengoa Migel Anjel Iparragirre.

### Silo-bolen plastiko bilketa

Silo-bolen plastikoak biltzeko kanpaina berria hasi da. Hilean behin egingo da bilketa, 3. astearteetan. Urte bukaera bitartean izendatutako egunak honako hauek dira: urriaren 15a, azaroaren 19a eta abenduaren 17a.

### Toka lehiaketa

Eguerdian toka lehiaketa ere jokatu zen. Irabazlea Puri Oiarbide eta herritar irabazlea, Jesus M. Muñoa.

### Tonbolako zenbaki saritua

Lierniko tonbolako sari bereziko zenbakia 192 izan zen. Zenbaki horren jabeak hilabeteko epea du saria jasotzeko.

*Iñaki Ugalde*

## Beasain

# 'Etxetik hasi behar delako' transmisio kanpaina

Aurtengo ikasturte-hasiera honetan, azken urteetan egin duten moduan, 6 urtez beheko haurrak dituzten gurasoentzat kanpaina berezia egingo du Udalak euskara-ikasketak egiteko. Ikasturte-amaieran matrikularen % 75 itzuliko zaie. Euskararen Biziberritze Plana dela eta, interes berezia du Udalak 6 urtez beheko haurrak dituzten gurasoek, euskara ikasten eta hobetzen ahalegina egiteko.

6 urtez beheko haurrak dituzten gurasoei gutunak bidaliko zaizkie etxeetara hori dena azalduz irailaren azken astean.



### Berritsu ludoteka

Orain dela bi urte hasita, Udalak antolatutako Berritsu ludoteka dugu Beasainen. Loinazko San Martin plazako geletan dago. 5 urtetik 12 urte arteko haurrentzat da. Arratsaldeko 5etatik 6,30etara 8 urtetik beherakoentzat eta 6,30-etatik 8etara 8 urtetik gorakoentzat. Zerbitzua egunero eskaintzen da astegunetan 5etatik 8etara eta larunbat goizetan 10etatik 1era. Oporraldietan (Eguberrietan eta Aste Santuan), larunbatetan bezala eskaintzen da zerbitzua. Matrikulatzeko, joan bertara edo deitu 943 886546 telefonora, arratsaldez. Urte guztirako matrikula 40 eurokoa da. Irailaren 23an emango diote hasiera.

### Koadrillategi

Iaz hasita, ikasturtean zehar, ostiralero, 17:00etatik 21:00etara, giro jatorrean, koadrillan, lagunartean, ondo pasatzeko eta euskaraz jarduteko Beasainen dagoen aukera paregabea da Koadrillategi. Aukera hori oraingoz DBH2 eta DBH3ko ikasleentzako da. Jolasak, elkarrizketa, irteerak, tailerrak, afari-meriendak, asteburu-pasaren bat, etab. Irailean, DBHko ikastetxeetan, Koadrillategiko arduradunek aurkezpenak egingo dituzte eta bertan izango da aukera izena emateko, baina ez banaka, koadrillaka, laguntaldeka baizik. Ekimena urriaren 4an hasiko da.

*Nekane Altuna*

### Arte Plastikoetako zentroan ikastaroak

**Marrazki eta pintura ikastaroa.** Bear pintura zaletuen elkarteak antolatu du ikastaro hau. Jokin Telleria izango dute irakasle eta urriaren 1ean emango diote hasiera lehengo ikasleek eta berriak berriz, azaroaren 4an hasiko dira. Helduek astean 4 orduko ikastaroa izango dute; gazteek 3 ordukoa eta haurrek 2koa.

**Zeramika eta esmalte ikastaroa.** Urriaren 8an emango diote hasiera, Buztina zeramika-zaletuen elkarteak antolatuta. Mariano Palenzuela izango da irakaslea. Klaseak astean bi ordukoak izango dira. Bilera urriaren 3an egingo dute 19:00etan Urbieta Arte Plastikoetako Zentroan.

**Argazkigintza ikastaroa.** Argizpi Argazkizale Elkarteak antolatu du ikastaro hau. Bi mailatan banatuko da ikastaroa. 1. mailakoak urriaren 7an hasiko dira eta 50 orduko iraupena izango du. Klaseak, astelehen eta asteazkenetan izango dira 19:00etatik 21:00etara eta larunbat goizetan irteerak egingo dituzte. 2. mailako ikastaroa urtarrilaren bukaeran hasiko da eta 30 orduko iraupena izango du.

**Antzerki ikastaroa.** Urriaren 5an hasiko da Errail antzerki taldeak antolatuta. Rosa Rojo izango da irakaslea eta larunbatetan izango da 10:00etatik 14:00etara. Ikasle kopurua mugatua da.

**Joste eta ebaketa ikastaroa.** Urriaren 1ean emango diote hasiera eta irakasle, Pilar Mujika Insausti izango da. Astean 8 orduko klaseak izango dituzte 4 taldetan banatuta: astelehenetik ostegunera 10etatik 12etara, 14:30etatik 16:30etara, 16:30etatik 18:30etara eta 18:00etatik 20:00etara.

**Ballet ikastaroa.** Urriaren 2an hasita, astean 3 orduko ikastaroa izango dute Gala Nieto irakasle dutelarik.

### Asmube Elkarteak antolatutako ikastaroak

Urrirako hainbat ikastaro antolatu dituzte.

**Yoga** ikastaroa, astearteetan eta ostegunetan, 9-10:30etara eta 10:30-12:00etara, eta astelehen eta ostiral arratsaldeetan 15:30-17:00etara.

**Tiffany** ikastaroa, astearteetan, 17:30etik 20:00etara.

**Idazkera sormen** ikastaroa, asteazkenetan, 16:00etatik 18:00etara.

**Eskulan ikastaroa,** asteazkenetan, 17:30-19:30etara.

**Dantza,** ostegunetan, 18:30-20:00etara eta 20:00-21:30era.

**Autoestimo tailerra,** astelehenetan, 17:30-19:00etara.

**Masaje ikastaroa,** astelehenetan, 18:30-20:00etara.

**Oleo pintura ikastaroa,** ostegunetan, 15:00-18:00etara.

**Informatikako Word programa,** astelehen eta asteazkenetan, 9:15-11:15era.

Izenak irailaren 26tik aurrera eman beharko dira eta informazio gehiago berriz, Asmubek, Urbi-etxean duen Elkartean emango da.

## Legorreta

# Autorik gabeko eguna

Bihar, larunbata, irailak 21, Autorik gabeko eguna izango da. Udalak, egun honetako ekitaldi bereziak antolatu ditu. Esaterako, egun honen aldarrikapenerako, eguerdiko 12etatik gaueko 10ak arte, Kale Nagusia trafikoari itxia egongo da.

Arratsalde partean, 5,30etan, Gym Khana jokoa izango da haurrentzat. Sariak banatuko zaizkie haur guztiei. Ordu bete beranduago, 6,30etan, solomo pintxo jatea izango da.

## Soinketa ikastaroa

Udaleko Kultur batzordeak Kutxa Gizarte-Ekintzaren laguntzarekin, hiru ikastaro antolatu ditu: aerobik eta mantenimenduzko soinketa. Ikastaroak astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira Ugaro Ikastetxeko Soinketa gelan.

Aerobika 9:00etatik 10:00etara eta 18:30etik 19:30era izango da eta mantenimenduzko soinketa, 19:30etik 20:30era. Ikastaroak urriaren 14an hasiko dira eta maiatzaren 23an amaitu.

Ikastaroak plaza mugatuak izango ditu, 15 ikasle eta izena emandako ordena errespetatuko da. Matrikularen kostua 75 eurokoa da eta Udal Bulegoetan izena ematerakoan ordainduak izango dira. Behin matrikula ordainduz gero, ez da dirurik itzuliko. Izena emateko epea urriaren 4an amaituko da.

## Ormaiztegi

# San Migel ospakizunak

Aurten ere iritsi zaigu San Migel eguna eta berarekin ohiko festa egitaraua prestatu du Udalak.

### Irailak 28, larunbata:

**12:00etan:** XI. San Migel toka txapelketa herrikoia, enparantzan.

**13:00etan:** VII. Harrikalari txapelketa herrikoia Berjaldegi zelaian.

**16:00etan:** XII. San Migel mus txapelketa herrikoia eliz atarian.

**16:30ean:** Haurrentzako jokoak Guraso Elkarteak antolaturik herriko enparantzan.

**18:00etan:** Haurrentzako ikuskizuna, zuzeneko musikaz eta haurren partaidetzarekin.

**Jarraian:** Guraso Elkarteak antolaturiko haurrentzako txokolate jana herriko enparantzan.

**21:00etan:** Afari herrikoia Zubipe kiroldegian. Ondorengo menua dastatzeko aukera izango da: marisko krema, txorixo eta odolki egosia, haragi gisatua, ijitu besoa, kafea eta edaria. Afarirako txartelak herriko tabernetan erosi ahal izango dira. Salneurriak: 18 urte artekoak eta langabetuak: 8 euro; helduak 10 euro.

**Jarraian:** Trikitilariek alaiturik giroa.

### Irailak 29, igandea:

**10:30ean:** Mendi bizikleta proba, herrian zehar osaturiko ibilbidean. Izen emateak eta irteera udaletxe aurrean. Helmuga, Itxune erretegi aurrean. Amaieran partaideei hamaiketakoa banatuko zaie.

*Aitziber Murua*

KEMEN KIROLAK
Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

ARRIETA
JATETXEA
☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak... era guztietako ospakizunak

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK
sukalderik goxoenak
Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

IÑAUSTI
KARROZERIA
N-1 errepidea, lurre auzoa
✆ 943 88 43 01 OLABERRIA

## Segura

### Ehiz postuak

Irailaren 15ean subastatu ziren Segurako udaletxean enkantera ateratako partzoneriko 48 postu. Ehiztariek 149.875,70 euro utzi zituzten, iaz baino 23.714 euro gehiago. Hamar ordainduenak ondorengoak:

| | |
|---|---|
| Apota 10 | 9.378 euro |
| Apota 12 | 7.572 euro |
| Agiñaran 4 | 7.520 euro |
| Iturgain 5 | 7.215 euro |
| Agiñaran 6 | 7.068 euro |
| Agiñaran 10 | 6.500 euro |
| Larrebil 5 | 6.102 euro |
| Larrebil 17 | 5.260 euro |
| Apota 8 | 5.143 euro |
| Apota 6 | 4.202 euro |

Subastatik kanpo, Segurari tokatu zitzaizkion postuak, irailaren 20an, 19:30ean, ehiztari herritarren artean zozketatuko dira.

### 2002-03 ikastaroak

● **Soinketa:** Arratsaldeko taldea irailaren 9an hasi zen, astelehen, asteazken eta ostegunetan (7:45-8:45). Goizeko taldea, urriaren 2an hasiko da, astearte eta ostegunetan (9:30-10:30). Jubilatuena urriaren 1ean hasiko da, astearte eta ostegunetan (15:00-16:00). Guztiak Baratze pilotalekuan.

● **Euskara:** Maila ertainetako talde bat osatua dago. Urriaren 3an hasiko dira maiatzaren amaiera arte. Udalak matrikularen %50a subentzionatuko du.

● **Joste lanak.** Urrian hasita (30 ordu). Bazkalondoan.

● **Egur tailaketa.** Urrian hasita (30 ordu). Iluntzean.

● **Aerobic.** Urte osorako eskaintza.

Izenak emateko epea, iraila. Ikastaro laburrak %25eko subentzioa. Izen ematea eta informazioa udaletxean (943801006).

## I. Euskal hegazti eguna

Herriko zenbait elkarte eta taldek udalarekin batera irailaren 29rako antolatutako egitaraua gauzaturik dago.

**Ostirala 20.** Arratsaldeko 7etan, iragarki txartela eta esku programa eta antolaketaren aurkezpena herritarrentzat, plazan.

**Asteazkena 25.** Euskal oiloaren inguruk hitzaldi praktikoa. Iñaki Izagirre Labeko Etxea Irungo jatetxeko sukaldaria. Zopajale elkartean, 20:00etan. Ondoren, dastatzeko bokadutxoak.

**Igandea 29. I. Euskal hegazti eguna:** Egitaraua 25. orrian.

### Herritarren hegaztiak

Arboladiko gunean hegazti postuak jarriko dituzten herritarrak Txetxu Etxeberria, Juanjo Oiarbide, Josetxo Orrigain, Iñaki Garaialde, Bonifaxio Lardizabal, Joxe Insausti, Blax Izagirre eta Joanito Telleria dira momentuz. Bertan, oiloak, oilarrak, txitak, antzarrak eta usoak ikusi ahal izango dira.

### Musika Eskola

Irailaren 9an hasi zuten ikasturtea. Lau urtetik gorakoentzat nahiz helduentzat irekia. 50en bat ikasle dabiltza, horietatik 12 mutiloar eta zeraindarrak. Hezkuntza musikalean 40 ikasle dabiltza eta musika tresnetan (pianoa, gitarra, akordeoia, panderoa, trikitixa, klarinetea eta saxofoia) 20. Iazko ikasturtean, eskolatik kanpoko zortzi emanalditan parte hartu zuten.

### Futbola

**Asteburuan etxean:** Irailaren 22an, 11:00etan Aizkorri-Intxurre (kadeteak). 17:00etan, Aizkorri-Zarautz (infantilak).

### Labur-labur

● **Sabiñanigoko duatloia.** Colladara (2885 m) igoera, korrika (32 km) eta mendi bizikletaz 28 km.) irabazi zuen Aitzol Telleriak irailaren 7an. Ibilbideak 2100 metroko desnibela du eta 4 ordu eta 54 minutu behar izan zituen, probaren errekorra 12 minutuan jaitsiz.

● **Europako sega txapelketa.** Datorren abuztuaren amaieran maduran burutuko den lehiaketa dela eta, udal ordezkariak eta antolatzaileak lurjabeekin elkartu ziren irailaren 14an, zelaien tratamenduaz, neurketaz, eta abar hitz egiteko.

● **Jubilatuen txangoa.** Irailaren 23an. Lodosan kontserbak bixitatu, Azagrako merkatura joan eta bertan bazkalduko dute. Arratsaldea Iruñean pasatuko dute.

● **Perretxiko argazkiak.** Ikusgai Elorripe tabernako erakusgunean.



*Lehen aldiz eskolaratu direnak: Asier Irureta, Iñigo Altuna, Xabat Maiotz, Oihane Montero, Ainhoa Goñi, Maialen Ugalde, Jon Mikel Salaberria eta Dunia Aziz.*

## 124 ikasle eskolan

Irailaren 9an hasi zuten Laiotz herri eskolan 02-03 ikasturtea. 2tik 12 urte arteko neska-mutikoak dabiltza bertan. 102 segurarrak dira, 12 mutiloarrak eta 10 zeraindarrak. Beheko eskolan, Haur Hezkuntzako 47 ume dabiltza eta goikoan Lehen Hezkuntzako 77. Lehen aldiz eskolaratu direnak 8 dira, hiru mutiloarrak. Irakasle lanetan dabiltzanak 15 dira. Irailaren 23tik aurrera arratsaldez ere hasiko dira.



*Txistu taldekoak pasa den ikasturte amaieran Sarara egindako txangoan.*

## Txistua

Joxemari Telleriaren gidaritzapean, solfeo eta txistuko klaseak urrian hasiko dira. Interesaturik daudenak, urriaren 2an, 19:00etan ager daitezela Kultur etxera. Bertan taldeak, ordutegiak eta abar zehaztuko dira. Iaz 40 lagun inguru ibili ziren.

*Joseba Telleria*

Idiazabal

# Musika Eskola martxan

Orain arte herrian txistua eta solfeoa ikasteko aukera zegoen, irailaren 13az geroztik, eskaintza zabaldu egin da. Idiazabalgo Musika Eskolak, Ordiziakoarekin elkarlanean, hizkuntza musikala, pianoa eta esku soinua ikasteko aukera eskaintzen du.

19 ikaslek eman dute izena 2002-2003 ikasturterako. Bostek pianoa ikasiko dute, beste seik esku soinua eta 8 lagun arituko dira hizkuntza musikala ikasten.

Klaseak Kultur Etxean emango dituzte, horretarako egokitutako geletan.

## Jubilatuen Eguna

Urriaren 13an, igandea, ospatuko dute herriko jubilatuek beraien eguna. Iazko moduan Jubilatuen Elkartean eman beharko da izena bazkarira joan ahal izateko.

Beraien eguna ospatu aurretik, Lodosara (Nafarroa) irteera antolatu dute urriaren 4rako. Joan nahi duenak Jubilatuen Elkartean eman dezake izena.

*Xabier Urteaga*

## Etxegarate

Etxegarateko bikoizketa lanak azaroaren bukaera alderako egongo dira prest Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duenez. Iazko uztailean bukatu beharreko lanetan, honenbestez beste atzerapen bat izango dela jakinarazi du Errepide Sailak.

Lanak bukatzeko azkena jarritako epea urrian betetzen da. Ordurako ordea errepide zati bat baino ez da egongo bukatuta, Ursuaranerako egiten ari diren sarrera irteera berritik hasi eta Nafarroako mugara bitartekoa hain zuzen ere. Urriaren bukaeran Benta Txikitik aurrerako 700 metro zabaltzeko asmoa dute, geratzen den zatia azaroaren bukaerarako prest egotea aurreikusi dute.

Lanak egiten ari diren enpresak multa ordaintzen ari dira ekainaz geroztik. Hileko 150.000 euro eman beharko dituzte lanak bukatu bitartean, Diputazioak ezarritako epeak ez betetzeagatik.

## San Migelak Ursuaranen

### Irailak 27, ostirala:

**19:00etan:** Jaien hasiera suziri eta kanpaiekin.

**Ondoren:** Afaria, mondejua, gixadua eta ardi txuletak.

**22:30ean:** IX. "Mus azkarra" lehiaketa.

### Irailak 28, larunbata:

**12:00etan:** Meza Nagusia

**Ondoren:** Txistulariekin hasita, Azpillaga eta Narbaiza bertsolariak, Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariekin.

**14:00etan:** Udaletxe bazkaria

**17:00etan:** XI. Toka lehiaketa

**Ondoren:** Bertsolariak

**Iluntzean:** afariak eta trikitixa goizaldera arte.

### Irailak 29, igandea:

**11:00etan:** Meza Nagusia.

**12:30ean:** Egur talla ikuskizuna.

**14:00etan:** Herri bazkaria, Sorozabal eta Zeberio bertsolariekin eta Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariekin.



**17:00etan:** Joko tradizionalak ume eta helduentzako trofeo, opari eta txokolate jana.


GUK lan

Berogintza
Iturgintza
Gasa
Klimatizazioa

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN
Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA

✔ Aholkularitza juridikoa
✔ Entrepresa zerbitzuak
✔ Aseguruak
GERTU ABOKATUAK
Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

ONGI ETORRI
taberna - jatetxea
*Eguneroko menua* eguerdi eta gauetan larunbatetan ere bai
*Afariak* bataioak jaunartzeak
Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala
Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioa, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak




Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

# Irriki Futbol Eskola urritik aurrera martxan

**Goierriko 6 eta 11 urte bitarteko neska-mutilentzat Irriki Futbol Eskola martxan jarriko da urritik aurrera. Astean behin, asteazkenetan, arratsaldeko 6etatik 7,30etara izango dira eskolak, momentuan, Segurako futbol zelaian.**

Aurrera begira, Goierriko beste herri batzuetan egitea ere badute asmoa Irriki Futbol Eskolakoek, belar artifizialeko instalakuntzak aprobetxatuz. Izena eman nahi duenak, 655707900 (Juan Carlos Garcia). telefono zenbakira deitu behar du.. Hilean 30 euro kostatuko da.

Baina zergatik Irriki Futbol eskola? *"Futbolean salto handia dago maila txikietatik talde federatuetara. Hutsune bat ikusten dugu. Badira hainbat gorabehera Gipuzkoan eta aipatutako kategorietan ez dira hain erraz sartzen. Horrexegatik aukeratu dugu Futbol Eskola sortzea, haurrek kirol horren hainbat alderdi ezagutu ditzaten, txapelketa federatuan sartu aurretik"*, esan zuen Joxi Azurmendik.



## Entrenatzaile-irakasleak

**Umetxoen pizgarria:** Joxi Azurmendi

**6-7** urte bitartekoak, Jokin Dorronsoro

**8-9,** Luis Monreal

**10-11,** Juan Carlos Garcia

**Heziketa fisikoko arduraduna,** SHEEn lizentziatua, Eñaut Telleria.

**Mediku eta prebentzio-gaien arduraduna,** Fisioterapian lizentziatua, Nerea Areizaga.

**Psikologia gaien arduraduna,** Psikologian lizentziatua, Agustin Linazasoro.

**Atezainen entrenatzaile bat,** jardunean ari den atezain bat.

## Proiektuaren helburuak

● **Denentzako proiektua:** edozein familiaren ekonomiarentzako eskuragarri izango da.

● **Aisia modu onean erabili:** denbora libreak duen garrantziaz jabetu, baita ondo erabili behar dela ere, eta kirola ez dela haurraren ikasbidea konpentsatzeko erabili behar.

● **Agresibitatea bideratu:** giza-agresibitatea bideratu eta zuzentzeko modurik egokiena da kirola, zuzen eta kiroltasunez jokatzen irakatsi behar zaie.

● **Kirol izpiritua:** honako gai hauek irakatsi: lagunekin lankidetzan, lagunarekiko eta etsaiarekiko errespetua, gainditzeko grina, autokontrolerako gaitasuna.

● **Kirolaren baloreak:** herri baten baloreen transmisioa, belaunaldiz belaunaldi; hizkuntza erabili, beste herrialde batzuekin harremanak; norbanakoen edo taldearen baloreak irakatsi, herri bezala ditugun baloreak hor daudela berresteko eta transmisiorako berezko kultur baliabideak ere hor daudela ikusteko.

● **Gizarteratzea:** Hain lehiakorra den gizarte batean, dohain gutxi dituztenak edo kulturalki baztertutakoak gehiago baztertzeko arriskua dago; horrexegatik, garrantzi handikoa da adin horretan, emakumezkoak eta minusbaliatuak kirolean sartzea.




## Irailak 29: II. Josetxo Imaz memoriala

Txindoki Atletismo Taldeak II. Josetxo Imaz memoriala antolatu du irailaren 29rako. 10 kilometrotako ibilbidea iazko berdina izango da, Ordizia, Beasain eta Lazkao zeharkatuz. Irteera goizeko 10,30etan izango da Ordiziako Altamira auzotik. Parte hartzeko 16 urte baino gehiago izan behar da eta izena emateko garaian 6 euro ordaindu behar dira.

Izena eman edo informazio gehiago jasotzeko txindokiat@yahoo.es helbide elektronikoa eta 676735073, 650183828 eta 943160334 telefonoak daude interesatuen eskura.

### Sariak

Bai gizonezko eta bai emakumezkoentzat: **1.** 300 euro, **2.** 180 euro, **3.** 120 euro, **4.** 90 euro eta **5.** 60 euro. Beterano kategori ezberdinetako garaile bakoitzak 30 euro jasoko ditu. Horrez gain parte hartzaile guztientzat sariak izango dira. Ordizia, Beasain eta Lazkaoko lehen sailkatuek ere saria izango dute.



ondoeta

✆ 943 88 31 02 - 943 88 74 51
Faxa: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

## Gaintzako erremontista

# Iñaki Aierbe, txapeldun handia

**Iñaki Aierbe goi-mailako pilotaria, txapeldun handia, izan dugu erremonte pilota-jokoan. Gipuzkoako Gaintza herriko semea bera, nahiz eta gaur Donostian bizi den. Pilota munduan lortu zuen maila gogoratu eta pixka bat berritzea ongi deritzogu, beraren auzoko eta adinez ere alde gutxikoak izanik, bere historia gertutik bizi izan genuenoi. Honela, gu baino gazteagoak direnek ere ezagutu ahalko dute Goierri bailarak eman duen pilotaririk ospetsuena.**

Berak jokaturiko partida guztiak datu denekin zehatz-mehatz ematea lan gaitza litzateke batetik eta bestetik ezinezkoa idazlan labur batean eskaintzeko. Erakusteko botoi bat aski dela esan ohi dugunez, bijoaz bizpahiru bitxikeria **'Un siglo de historia del remonte'** liburutik hartuak. 1969an, Azkarate II.ak eta Aierbek Elgorriaga eta Etxenikeren aurka jokatu zuten, 'Irigoien trofeoa' jokoan zegoelarik. Partida oso gogorra eta emozioz betea izan zen. Lekunberri eta Ugarte ziren orduko txapeldunak eta faboritoak. Aierbek eta Iriarte I.ak osatu zuten beste bikotea. Nahiz eta lauetan onena Paulo Lekunberri izan, Aierbek 16 tanto egin zizkion sakez. Urte berean, Raul eta Aierra II.aren aurka Olaberrirekin jokatutako partidan, sakez 15 tanto egitea lortu zuen Aierbek, partida irabaziz. Lekunberri anaien aurka jokaturiko





1.-
Hamaika sake bazuan horrek
era zailetan botea,
halakoxea izan oi zan
gero pilotan botea;
geienetan ezinezkoa
zan hura eramatea,
egokiago ezin zan lortu
tantoen errematea.

2.-
Egia esan, bazun jokoa
bai leian eta sakean,
estututzean ikusten zuten
honek zenbat zezakean:
tantoak ere azkar bukatu
hasten zanen atakean,
areriongan nagusiture
honek zeukan jotakean.

3.-
Erasoaldin da egokieran
jotzen zuanen aidean,
aguro asko bialiko zun
hamar halako bidean;
sasoia eta jokoan ona
aparta berriz idean,
munduan onena zala zioten
remontistako kidean.

4.-
Garbi ikusten da izan zinala
remontean berezia,
berrogeita sei urtekine
txapela irabazia;
gizon bezala on eta fina,
jokoan berriz bizia,
gure Jainkoak urte askotan
eman deizula grazia.

*Patxi Telleria*

partidan, berriz, Olaberri eta Aierbek, 40-39 gainditu zituzten, lau pilotariek goi-mailako partida jokatu zutelarik. 1974. urtea izan zen Iriarte I.ak eta Aierbek Hispaniako erremonte txapelketan txapela bereganatu zuten urtea. Beren arerioak Lekunberri anaiak izan ziren. Lehia handiko partida izan zen. Lekunberri anaiak faboritoak izan arren, Aierbe eta Iriarte heldu ziren 40. tantora, 38 zenbakian utziz beren arerio gogorrak. Aierberen sake gaiztoa erabakigarria izan zen garaipenean. Bederatzi tanto egin zituen. 1976ko abuztuaren 10ean Ibero eta Aierbek hirukotearen aurka jokatu zuten. Olaberri, Iriarte I. eta Anjel Lekunberrik osatzen zuten hirukotea. Bi tantoz irabazi zuen partida bikoteak, 40-38. Partida bikaina eta lehiatsua, jokaldi eder eta etengabeko txaloak.

1975-76 urteetan ez zen Hispaniako erremonte txapelketarik jokatu. Iriarte I.a eta Aierbe ziren azken txapelketaren (1974) irabazleak. 1977. urtean jokatu zen berriro txapelketa. Lehenengo partidan Iriarte I.a eta Aierbe, Raul eta Urteagaren aurka. Bikote txapeldunak erraz menderatu zituzten arerioak, 40-25. Sakez 8 tanto egin zituen Gaintzako pilotariak. Baina, Aierbek eta Iriartek ez zuten lortu txapela janztea, laugarren gelditu baitziren. 1978an lortuko zuen Aierbek berriro txapeldunen txapela janztea. Intxauspe izan zen bere bikote-laguna. Iriarte I.a eta Urteaga aurkariak. Bikote gipuzkoarra, historian lehenengo aldiz, irten zen garaile. Aierbek 13 tanto egin zituen sakez eta azken lau sakeak, zitalak bezain erabakiorrak izan ziren txapela eskuratzeko; 40-35 izan zen emaitza.

1980ko urtean jokaturiko txapelketan ere Aierbe finalerako klasifikatu zen. Raul bere laguna. Iriarte I.a eta Zestau I.a arerioak. Gazte eta "beteranoen" arteko borroka izan zen. Bikote gaztea irten zen garaile eta txapeldun, hamar tantoz irabaziz. Azpimarragarria Aierbek erakutsi zuen defentsa, baina sakatzen ez zen luzituegi ibili. Sasoiko gazte onak atzetik bultzaka eta Aierbe berriz 50 urtera gerturatzen. Sakean onenaren maisu izan arren, sake zitalak gidatzeko gihar hori ere betirako ez izan.

# IKAS EZAZU DOAN INTERNETEN NABIGATZEN

Interneterako doako Sarbidea eta Prestakuntza eskaintzen dituen Zentro-sarea

KZ gunea

Interneterako doako Sarbidea eta Prestakuntza eskaintzen dituen Zentro-sarea

***BIZKAIA***

**Arrigorriaga**
Paseo Urgoiti, 3 • Tel.: 94 6714608

**Bakio**
Barrio Urkizaur, 28 • Tel.: 94 6195718

**Balmaseda**
Martín Mendia, 15 • Tel.: 94 6801390

**Barakaldo**
La Florida, 14 - 16 • Tel.: 94 4389923

**Basauri**
Ibaigane, 2 • Tel.: 94 4496641

**Berango**
Abarotxu bidea, 17 • Tel.: 94 6682502

**Bermeo**
Zubiaur tar Kepa, 26 – 28 1goa
Tel.: 94 6881194

**Berriz**
J. V. Zengotitabengoa, 8
Tel.: 94 6225767

**Bilbao -Basurto**
Luis Briñas, 18 • Tel.: 94 4413971

**Bilbao -Begoña**
Circo Amateur Club Deportivo, 2
Tel.: 94 4734890

**Bilbao -Uribarri**
Plaza Moraza Enparantza, 4 A
Tel.: 94 4460972

**Ermua**
Cruce Kaltzango, s/n
Tel.: 943 174702

**Etxebarri**
Parque Bekosolo Parkea, 2
Tel.: 94 4492622

**Getxo-Areeta**
Las Mercedes, 13 – 4gna (Areeta)
Tel.: 94 4316589

**Getxo-Algorta**
Avenida Algorta etorbidea, 98
Tel.: 94 4911724

**Gordexola**
Plaza Molina Enparantza, 11
Tel.: 94 6798066

**Gorliz**
Plaza de la Iglesia, s/n (udaletxea)
Tel.: 94 6775200

**Güeñes**
Urrestieta, 21 bajo (antigua ikastola)
Tel.: 94 6692350

**Igorre**
Elexalde, 30 • Tel.: 94 6737018

**Iurreta**
Bidebarrieta, 4 (Ibarretxe Kultur Etxea)
Tel.: 94 6203826

**Karrantza**
Barrio Soscaño, 50 • Tel.: 94 6106970

**Leioa**
Sabino Arana, 48 • Tel.:94 4636503

**Markina-Xemein**
Xemein etorbidea, 13
Tel.: 94 6168429

**Mungia**
Gamizbidea, 30-32• Tel.: 94 6741217

**Orduña**
Gran Vía, 10 • Tel.: 945 384539

**Portugalete**
Casilda Iturrizar, s/n • Tel.: 94 4954158

**Santurtzi**
Los Cuetos s/n (Instituto de FP)
Tel.: 94 4611768

**Sestao**
San Diego, 12 • Tel.: 94 4950826

**Sopelana**
Gatzarriñe, 2 • Tel.: 94 6762477

**Zalla**
Maestra Consuelo Robredo, 18
Tel.: 94 6390332

***ARABA***

**Amurrio**
Landako, 8 • Tel.: 945 890514

**Asparrena**
Ilarduibide, 7 (Kultur Etxea)
Tel.: 945 304227

**Artziniega**
Cantón de la Parroquia, 2
Tel.: 945 396513

**Kanpezu**
Debajo de las casas, 2 (Kultur Etxea)
Tel.: 945 415157

**Laguardia**
Sancho Abarca, 16 • Tel.: 945 600517

**Laudio-Llodio**
Lamuza, 13 • Tel.: 94 6728397

**Legutiano**
Plaza Ortiz de Zarate, s/n (Kultur Etxea)
Tel.: 945 455342

**Vitoria-Gasteiz -Hegoalde**
Alberto Schommer, 10 (centro cívico)
Tel.: 945 230055

**Vitoria-Gasteiz -Lakua**
Senda de los Echánove, s/n
(centro cívico) Tel.: 945 178225

**Vitoria-Gasteiz -Aldabe**
Eulogio Serdán, 2 bajo (centro cívico)
Tel.: 945 139667

**Salvatierra-Agurain**
Fueros, 16 (club de jubilados)
Tel.: 945 301072

**Zuia**
Añureta, 2 (Casa Vea-Murguía)
Tel.: 945 430740

***GIPUZKOA***

**Alegia**
Beistin Auzoa, z/g (Kultur Etxea)
Tel.: 943 698869

**Arrasate**
Otalora, 10
Tel.: 943 793554

**Astigarraga**
Tomás Alba, 13
Tel.: 943 557673

**Azkoitia**
Trenbidearen Zumardia, 1
Tel.: 943 850146

**Azpeitia**
Foru Ibilbidea, 18 • Tel.: 943 811864

**Beasain**
Oriako Pasealekua, 12
Tel.: 943 160147

**Deba**
Ifar kalea, 4 baxua • Tel.: 943 192107

**Donostia-San Sebastián -Alderdi Eder**
Parque Alderdi Eder Parkea, z/g
Tel.: 943 423865

**Donostia-San Sebastián -Ernest Lluch**
Paseo Anoeta Pasealekua, 7
Tel.: 943 465718

**Donostia-San Sebastián -Egia**
Baztán, 21 • Tel.: 943 281521

**Donostia-San Sebastián -Larrotxene**
Intxaurrondo, 57 • Tel.: 943 280731

**Donostia-San Sebastián -Casares**
Camino Darrieta Bidea, 1
Tel.: 943 352745

**Errenteria**
Olibet, 6 baxua/bajo • Tel.: 943 520692

**Eibar**
Carmen Kalea, 3 bajo/baxua
Tel.: 943 120390

**Elgoibar**
Nafarroa plaza, 1-2gn. pisua
Tel.: 943 748828

**Elorrio**
Berriotxoa, 16 bajo/baxua
Tel.: 94 6583189

**Idiazabal**
Kale Nagusia, 52 (Pilarrenea)
Tel.: 943 187132

**Ikaztegieta**
San Lorenzo, s/n • Tel.: 943 650507

**Irún**
Alfonso Morales, 4 • Tel.: 943 615571

**Lasarte-Oria**
Oriamendi plaza, 2 bajo/baxua
Tel.: 943 360568

**Legazpi**
Plaza Latxartegi Enparantza, 3
Tel.: 943 737031

**Mendaro**
Herriko Enparantza, 1 (udaletxea)
Tel.: 943 756013

**Oiartzun**
Madalensoro plaza (pilotalekua)
Tel.: 943 490875

**Ordizia**
Domingo Unanue Plaza, 8 behea
Tel.: 943 884378

**Soraluze**
Baltegieta, 18
Tel.: 943 753045

**Tolosa**
Pablo Gorosabel, 34 – B
Tel.: 943 653720

**Urretxu**
Barrenkale, z/g
Tel.: 943 725359

**Zarautz**
Zigordia, 34 • Tel.: 943 135046

**Zumaia**
Foronda Kultur Etxea
Tel.: 943 862866

**Zumarraga**
Avda. Iparragirre Hiribidea, 4
Tel.: 943 720728

***HURRENGOAK***

**ARABA**
Alegria-Dulantzi
Elciego
Iruña de Oca
Izarra
Labastida
Oion

**BIZKAIA**
Abanto
Basauri 2
Bilbao -Deusto
Bilbao -Otxarkoaga
Durango
Galdakao
Larrabetzu
Lekeitio
Loiu
Mutriku
Ondarroa
Ortuella
Usansolo

**GIPUZKOA**
Bergara
Donostia -Lugaritz
Hernani
Hondarribia
Lezo
Oñati
Orio
Zegama
Zerain

:-) euskadi
informazio gizartean ■ en la sociedad de la información

FEDER-PRAI

**Informa zaitez zure udaletxean ala deitu 012 telefono zenbakira (Eusko Jaurlaritza)**

## ZINEA

**LEGORRETA:**

**Urriak 3:** 'El señor de los anillos', 20:30ean, Herri Zineman.

**BEASAIN:**

**'Hombres de negro'**
Ostirala, 20: 22:15.
Larunbata, 21: 22:15.
Igandea, 22: 19:30 - 22:15.
Astelehena, 23: 19:30-22:15.

**ORDIZIA:**

**'El hombre que nunca estuvo allí'**
Ostirala, 20: 22:15.
Larunbata, 21: 22:15.
Igandea, 22: 19:30 - 22:15.
Astelehena, 23: 19:30-22:15.

**'Stuart Little 2'**
Igandea, 22: 16:45.

## pailazoak

GAINTZA:

***Irailak 28***, Poxpolo, Mokolo eta konpainia pailazoak, 17:00etan.

## hitzaldiak

ALTZAGA:

***Irailak 27***, Perretxikoen inguruko hitzaldia eta diapositiba emanaldia Arantzadi Zientzia Elkarteko Jose Mari Zapiainen eskutik, Artea elkartean, 20:00etan.

## dantza

ALTZAGA:

***Irailak 28***, Xukan taldearen eskutik, 'Iturrian zer dago' dantza eta bertso ikuskizuna, Artegain pilotalekuan, 23:00etan.

LAZKAO:

***Irailak 29***, Dantzari Txiki eguna. 13:00etan alardea plazan eta 17:00etan dantza taldeen emanaldia.

## musika

GAINTZA:

***Irailak 27***, Ansorregi taldea, 22:30ean.

***Irailak 28***, Epelde eta Larrañaga, 22:30ean.

ITSASONDO:

***Irailak 21***, Ttakunpa, Loud&Lone eta Ea!, 22:30ean, pilotalekuan.

LAZKAO:

***Irailak 27***, Gozategi, 22:30ean.

***Irailak 28***, Sakatrik, 22:30ean.

***Irailak 29***, Imuntzo eta Beloki, 22:30ean.


HARRIA GRESAK

BAINUGINTZAKO PROFESIONALAK






HARRIA GRESAK

Diseinuan beti aintzindari

*Bisita gaitzazu eta ezagutu bainugintzako azken moda*

Tel.: 943 88 54 66 Faxa: 943 16 19 75
Zelaeta, 1 BEASAIN

## erakusketak

**BEASAIN:**

*Irailaren 27ra arte,* M. Angel De la Cruzen pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

*Irailaren 27tik urriaren 6ra,* Buztina Zeramika Elkartekoen lanak, Usurbe antzokian.

*Irailaren 28tik azaroaren 18ra arte,* V. Jesusen ikasleen erakusketa, Aterpe tabernan.

*Irailaren 29ra arte,* Ars Lignae erakusketa, Igartza jauregian.

**ORDIZIA:**

*Irailaren 27ra arte,* Serge Fudji artistaren erakusketa, Barrenan.

**ZEGAMA:**

*Astebukaeretan,* Ehungintza tailerraren erakusketa. Ordutegia: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

*Astegunetan:* Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.
*Irailak 21-22:* Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.
*Irailak 28-29:* Laurnaga (Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.

## Emakumezkoentzako internet ikastaroa

Emaweb programaren barruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Emakundek eta FSEk antolaturik, emakumezko langabetuentzako internet ikastaroa izango da urriaren 21etik azaroaren 7ra, Goierri Lanbide Eskolan.

Informatikaz ezertxo ere ez dakiten 30 urtetik 65 urtera bitarteko emakumezkoentzako ikastaroa da. 26 ordukoa. Hiru ordutegi izango dira aukeran, astelehenetik ostiralera: 9:30-11:30, 15:00-17:00 eta 18:30-20:30. Izen ematea Goierri Lanbide Eskolan egin behar da. 943 88 00 62 (Begoña).

## Yoga ikastaroa Ordizian

Barrena Kultur Etxean, urriaren 1ean hasiko du ikasturte berria Yoga Klasikoko Elkarteak. Maiatzera bitartean, hilero ikastaro ezberdinak izango dira, astearteetan, 18:30etik 20:00etara. Prezioa: hileko 20 euro. Izena emateko epea, irailaren 28an amaituko da. Telefono zenbakia: 943889770.

## Erretzeari uzteko ikastaroa Beasainen

Irailaren 24an hasiko da Beasaingo udaletxean erretzen uzteko ikastaroa, Udaleko Gizarte Ongizate Batzordeak antolaturik. Minbiziaren Aurkako elkarteak eskainiko du ikastaroa. Irailaren 24an motibazio hitzaldia egingo da. Handik aurrera, urriaren 15ean hasita, astero ordu betez, astearteetan, 6 saio egingo dira. Bi ordutegi daude aukeran: 15:00-16:00 edo 16:15-17:15. Plazak mugatuak dira. Izena emateko deitu 943805610 telefonora. Matrikularen kostea: 60 euro.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



OKINDEGIA GARONA

K. Nagusia 35 ☎ 943 88 77 58 BEASAIN
Elosegi, 14 ☎ 943 88 72 79 LAZKAO
Sta. Maria, 19 ☎ 943 16 00 44 ORDIZIA

HORTZ KLINIKA



*CAMPAGNOLE Doktorea*
Zirujau dentista
473 zki. kolegiatua

*Bere hortz klinikaren zabaltzearen berri ematen dizue.*

*Odontologia, haur eta helduentzako ortodontzia, periodontzia eta hortz inplanteak jartzen ditugu.*

Nafarroa etorbidea, 8 - 1.A BEASAIN
☎ 943 085 229

IKASTEK AKADEMIA 2002-2003 IKASTURTEA
Goierriko akademia integral bakarra. Hezkuntzako profesionalek zuzendua

ESKOLA LAGUNTZA
- Gai eta maila guztiak
- Lehen hezkuntza, DBH
- Batxilergoa
- Moduluak, Zikloak
- Unibertsitate-maila

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA
- Marrazketa teknikoa
- Fisika
- Matematika
- Teknologia

TAILERRAK
- Ortografia
- Irakurmena
- Idazmena
- Testu komentaketa
- Matematika
- Logika, Kalkulua

IKASKETA ARAZOAK
- Errendimendua
- Atentzioa
- Ohiturak
- Metodoak
- Emozioen kontrola

Joan Iturralde, 5 BEASAIN ☎ 943 160 120 ikastekakademia@latinmail.com

# Debaldeko iragarkiak

## Etxebizitzak

### salgai

➡ Legorretan pisua salgai. Txabola ere badu. Prezio onean. 670422051.

➡ Idiazabalen etxebizitza salgai, garajearekin. 605735042.

➡ Etxebizitza salgai Itsasondon. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta ganbara. 943674713.

➡ Etxebizitza salgai Beasainen. 3 logela. Baratza. Plazatik minutu batera. 943885751.

➡ Beasainen pisua salgai. Berritzeko. 605772243.

➡ Ordizian etxebizitza salgai, Altamira kalean, estadio ondoan. 646246736.

➡ Antzuolan, eraikitzen ari diren etxe adosatua salgai. 300 m$^2$. 657732833.

### errentan hartu

➡ Ordizian eta inguruan, pisu bat behar da alokairuan. 656760284.

➡ Bikote gazte euskaldunak pisua behar du alokairuan Zarautzen, urte osorako. 610738055. Unai.

### errentan eman

➡ Ordizian, herri erdian, pisua alokatzen da. 943882928.

➡ Aiegin, Lizarratik kilometro batera, irailetik ekainera, pisua alokatzen da. 3 logela, berogailua, 2 autorentzako garajea. Dena irekia eta ikusmira onekin. 943884969 - 655722341.

➡ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretan. 948533981.

### konpartitu

➡ Madrilen ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914595390.

➡ Leioan, beste neska batzuekin pisua konpartitzeko gela baten bila nabil. Ixiar. 943084723.

➡ Leioan pisua osatzeko pertsona bat behar da. 652715314.

➡ Bi neska euskaldun behar dira Gasteizen pisua osatzeko. Pisu berritua, berogailuarekin. Unibertsitatetik 5 minutura. 943800238 - 696302297.

## Lokalak

### alokairuan hartu

➡ Ormaiztegin biltegia alokatu nahi dut. 943889900.

## Negozioa

### salgai/alokairuan

➡ Sagardotegia alokatzen da jubilazioagatik. Bezero finkoa. Errendimendu ona. Pertsona arduratsua eta esperientziaduna eskatzen da. Informazio pertsonala 676049931.

➡ Liburudenda alokatzen edo saltzen da Beasainen. 616698236.

## Animaliak

### salgai

➡ Hamar ardi eta bi ahari salgai. Bere kuporekin. 651703224 - 943160479.

➡ Eugpaniel Breton arrazako txakurkumeak salgai. 652753572.

➡ Setter arrazako zakurkumeak salgai. Martxoaren 30ean jaioak. Ehizerako irrika eta parada ikustekoak. Basoan heziak. 943801806 - 656751603.

mazda
Bikar, S. A.


☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma BEASAIN

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA
Promozioa: auto ordua 12 euro
Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

PSIKOLOGI KLINIKOA
APGI
Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak
Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95
AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN



MUJIKA
LIBURUDENDA
Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

## Ibilgailuak

### salgai

➡ Renault Clio 1700 salgai. 3 atekoa. Berdea. SS-AM. 615783362. Jexux Mari. Gauean deitu, 8etatik 9etara.

➡ Combo Tour furgoneta salgai. 1700 diesela. SS-AX. 943801474 - 6392850.

➡ Cady motorra salgai. Egoera onean. 120 euro. Gauez deitu. 943162510.

➡ Renault Super 5 autoa salgai. SS-W. Merkea. 943160013.

➡ BMW 325 TD salgai. 4 urte. Airbag eta abs. Trakzio kontrola. Klimatizatu digital independentea. 653727455.

➡ Derbi Senda-R 2000 motorra salgai. Egoera oso onean. 650250016.

➡ Yamaha FZR 1000 Exup motorra salgai. 95. urtekoa. 646308919.

## Bestelakoak

### salgai

➡ Egurra salgai. Iharra eta ondo txikitua. Pagoa eta haritza. Entrega etxera. 943883410.

➡ Audio CD grabadora salgai. Oso egoera onean. 35 CD opari. 943027903. Anjel.

➡ Ezkontzako soinekoa salgai. 2002ko uztailean erabilia. Aurtengo linea sentzilloa eta elegantea. Esku larruak ere bai. Dena 1.200 eurotan. 686788017 - 943363996. Arantxa.

➡ Sony markako Walkman erosi berria salgai. Dijitala da eta autorebersea egoera oso onean. 36 euro. 943027516. Gauez deitu.

➡ Dumperra salgai. Arranke elektrikoa eta bolkete hidraulikoa giratorioa. Oso egoera onean eta merke. 943885831.

➡ Zumezko altzariak salgai. Egongelarako edo terrazarako. 943724272.

➡ Bixkientzako kotxesilla salgai, bere gehigarri guztiekin. 943162384 (Labores Otea).

## Lana

### eskaerak

➡ Ataunen neska euskalduna behar da tabernan arratsaldez lan egiteko. 943180019.

➡ Neska bat behar da tabernan lan egiteko. 943882029.

➡ Okindegi baterako saltzailea behar da. 615749901.

➡ Ormaiztegiko jatetxe batean zerbitzaria behar da. 943882893.

➡ Gaintzako taberna batean neska behar da asteburuetarako. 943886243.

➡ Beasainen, Foru kalean, neska edo emakume euskalduna behar da umeekin lagundu eta etxeko lanak egiteko, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 11:00etara. 615795480.

➡ Altzagan pertsona bat behar da fregaderako lanak egiteko larunbat gauean eta igande batzutan. 615700408.

➡ Emakume edo neska bat behar da Lazkaon, goizez 2 haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. 625704453. Arratsaldetan deitu.

➡ Sagardotegi batean bi zerbitzari behar dira: bat aste guztirako eta bestea asteburura ko. 943882049.

➡ Neska edo emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko. 943880845.

➡ Emakume bat behar da, 3 ume zaintzeko, irailetik aurrera, arratsaldetan. 605721107. 16:00etatik 20:00etara deitu.

### eskaintzak

➡ Neska bat eskaintzen da hurrengo urtean arratsaldeetan lan egiteko. Umeak zaintzen edo dendan. 606598100.

➡ Beasaingo 25 urteko neska prest dago arratsaldeetan haurrak zaintzeko. 686374559. Sonia.

➡ Neska bat eskaintzen da haurrak zaintzeko. 606598100.

➡ Hormigoizko eta egurrezko egiturak egiten dira. 629449460.

➡ 18 urteko neskak umeak zaindu (esperientziaduna) edo denda batean saltzaile gisa lan egingo luke. 653742370.


ORDIZIAKO UDALA

# 2002-2003 KIROL EKINTZAK

Polideportivo MAJORI Kiroldegia

**AEROBIC-a**

Astelehen, astearte, asteazken, ostegun eta ostiraletan, 9-10, 10-11, 13:30-14:30, 15-16, 17-18, 18-19, 19-20 eta 20-21etan.

**MANTENU GIMNASI LEUNA (3. adina)**

Astelehen eta asteazkenetan 16-17etan.
Ostiraletan 12-13etan.

**MANTENU GIMNASIA**

Astelehen, asteazken eta ostiraletan, 19-20etan.
Astearte eta ostegunetan, 19:30-20:30etan.

**EUSKAL DANTZAK**

Larunbatetan, 11-12etan.

**IGERIKETA**

Astelehenetik ostiralera 9-10, 17-18 eta 18-19etan.
Astelehen, asteazken eta ostiraletan 20-21etan.
Astearte eta ostegunetan 20-21etan.
Astelehenetik ostegunera 12-12:30 eta 16-16.30etan (0-3 urtekoentzat)

**JUDO-a**

Astelehen eta asteazkenetan 17-18 eta 18-19etan.

☎ 943 88 93 33 ORDIZIA ☎ 943 88 93 53



# La Salle ikastetxekoak, 1967an

**Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera:** Zufiaurre, J.R. Goiekotxea, Daniel Sabino, Vicuña, Ventureira, A. Perez, Patxi Arrugaeta, Mentxaka eta X. Etxeberria.

**2. ilaran:** J.M. Mingo, Jesus Martinez, Amundarain, Faustino Omeñaca, Javier Urteaga, Araña, Balerdi, J.M. Urizar, Raimundo Gamazo, Alejandro Gonzalez, Genaro Sanchez eta Mungia.

**3. ilaran:** Jose Sarriegi, M.A. Apalategi, Imaz, Geronimo Imaz, Aizpurua, Ezekiel Etxezabal, Loren Jauregi eta Etxeberria.

**4. ilaran:** Antonio Rapha, Jose Luis Rodriguez, Gimeno, Juanjo Diez, Jesus Sarasola, Santos, Pedro Villamarin, Maestro eta J.I. Urkiola.

BEASAINGO
UDAL
EUSKALTEGIA
2002-2003 IKASTURTEKO
EUSKARA IKASTAROAK
Matrikula epea: irailaren 20 arte
Bulego ordutegia: 09:00 - 13:00
15:00 - 19:00
Loinazko San Martin plaz, Kultur Etxea, 1.a
© 943 028 100 BEASAIN

VOLVO
TOYOTA
ŠKODA
Volkswagen taldea
ANZIZAR, S.A.
Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea
Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

GOIERRI
Errehabilitazioa
Fisioterapeuta behar da
943 88 12 71
Andra Mari kalea, 11-1.B
BEASAIN


oskarbi
udazken
oinetakoak
Tel.943 88 41 04
kale Nagusia 34 BEASAIN
Tel.943 88 19 44
kale Nagusia 25 ORDIZIA


2002ko udazkena
antzizar kiroldegia
tel.943 88 79 00
ANTZIZAR
BEASAINGO UDALA